Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ESPEDIENTEA: 2025/0011/074/04

ZERBITZUAK

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

PROZEDURA IREKIA

1. ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA
1.1. Araubide juridikoa
1.2. Errekurtsoak
1.3. Jurisdikzio eskuduna
2. ESPARRU-AKORDIOAREN ALDERDIAK
2.1. Kontratatzeko eskumena
2.2. Esparru-akordioaren arduraduna
2.3. Kontratatzailearen profila
2.4. Erakunde jasotzaileak
2.5. Kontratatzeko gaitasuna
3. ESPARRU-AKORDIOAREN OBJEKTUA, EXEKUTATZEKO EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA.
3.1. Esparru-akordioaren objektua
3.2. Esparru-akordioa exekutatzeko epea
3.3. Esparru-akordioa luzatzeko aukera
4. ESPARRU-AKORDIOAREN LIZITAZIO-AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTUKO KONTSIGNAZIOA
4.1. Esparru-akordioaren lizitazio-aurrekontua eta balio zenbatetsia
4.2. Aurrekontuko kontsignazioa
5. ESPEDIENTEAREN IZAPIDETZEA ESPARRU-AKORDIOA ADJUDIKATZEKO.
6. ENPRESA(K) AUKERATZEA ESPARRU-AKORDIOA EGITEKO.
6.1. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publikotasuna, informazioa eta konfidentzialtasuna.
6.2. Adjudikazio-prozedura
6.2.1. Prozedura
6.2.2. Adjudikazio-irizpideak
6.3. Interesdunen proposamenak
6.3.1. Proposamena
6.3.2. Eskaintzak aurkezteko epea
6.3.3. Aldaerak
6.3.4. Aurkeztu beharreko agiriak
Arau orokorrak
“A” GUTUN-AZALA (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa)
“B” GUTUN-AZALA (automatikoki kuantifika daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa)
“C” GUTUNAZALA (automatikoki kuantifikatu ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa)
6.4. Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea prozeduran
6.5. Eskaintzen balorazioa
6.5.1. Organo eskuduna
6.5.2. Proposamenak irekitzea eta Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren jarduna
6.5.3. Eskaintza baxuegiak
7. ESPARRU-AKORDIOAREN ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA FORMALIZAZIOAREN PUBLIKOTASUNA.

7.1. Esparru-akordioa ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.

7.2. Esparru-akordioaren adjudikazioa
7.2.1. Eskaintzak sailkatzea
7.2.2. Berdinketak haustea
7.2.3. Esparru-akordioa adjudikatu gabe uztea
7.2.4. Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresari eskatuko zaion eta hark aurkeztu beharko duen dokumentazioa
Kontratatzeko betekizunei buruzko frogagiriak
Dokumentazioa osatzea
Lizitatzaileen erregistro baten ZIURTAGIRIA baliatuz egiaztatzea.
7.2.5. Esparru-akordioa adjudikatzeko epea
7.2.6. Enpresa lizitatzaileei esparru-akordioaren adjudikazioa jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea
7.2.7. Esparru-akordioaren formalizazioa
7.2.8. Esparru-akordioaren formalizazioaren publikotasuna

8. ESPARRU-AKORDIOAREN EXEKUZIOA
8.1. Esparru-akordioa betetzearen ondoriozko betebeharrak

8.2. Esparru-akordioa aldatzea eta eguneratzea

9. ESPARRU-AKORDIOA AZKENTZEA
A) Esparru-akordioa betetzea

B) Esparru-akordioa suntsiaraztea

10. ESPARRU-AKORDIOAREN KONTRATU ERATORRIAK
10.1. Kontratu eratorriaren kontratazio-organoa

10.2. Kontratu eratorrien arduraduna
10.3. Kontratu eratorriak adjudikatzeko prozedura
10.4. Kontratu eratorriaren baldintzak esparru-akordioaren baldintzen arabera egokitzea
10.5. Kontratu eratorrien iraunaldia
10.6. Behin betiko bermea
10.6.1. Bermea eskatzea eta haren zenbatekoa
10.6.2. Bermea egiaztatzeko epea
10.6.3. Bermea jartzeko moduak
10.6.4. Bermeak estali behar dituen erantzukizunak
10.6.5. Bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea
10.6.6. Itzulketa eta ezereztea
10.7. Kontratu eratorriaren prezioa
10.7.1. Prezio zehatza
10.7.2. Prezioa ordaintzea
10.7.3. Ordaintzeko modua
10.7.4. Urtekoak
10.7.5. Prezioak berrikustea
10.8. Kontratua aldatzea
10.9. Kontratu eratorriaren exekuzioa
10.10. Kontratazio-organoaren eskumenak
10.11. Epea betetzea eta entregatzeko lekua
10.12. Exekuzio akastuna eta berandutzea
10.12.1. Exekuzio akastuna
10.12.2. Berandutzea
10.13. Kontratua exekutatzean hirugarrenei eragindako kalte-galeren ordaina
10.14. Kontratistaren betebeharrak
10.14.1. Lan-arloko, gizarte-arloko eta ingurumen-arloko betebeharrak
10.14.2. Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak
Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena
Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak
10.14.3. Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

10.14.4. Hirugarrenen baimenak
10.14.5. Adjudikaziodunak materiala zaindu behar izatea
10.14.6. Desgaitasuna duten pertsonei eragiten dieten oztopo arkitektonikoak eta komunikazio-oztopoak kentzea
10.15. Kontratua etetea
10.16. Enpresa kontratistaren ondorengoa izatea esparru-akordioa edota kontratu eratorria exekutatzen den bitartean
10.17. Gardentasuna
10.18. Lehiaren eta kolusioaren prebentzioaren inguruko betebeharrak
10.18.1. Lehiaren arloko indarreko betebeharrei eta xedapenei buruzko aholkularitza
10.18.2. Lehia askea babestea
10.18.3. Kolusioan aritzen diren enpresa lizitatzaileentzako ondorioak
10.18.4. Kalte-galeren ordaina eskatzeko ekintzak

11. KONTRATU ERATORRIA AZKENTZEA
A) Kontratua betetzea

11.1 Harrera
11.2 Kontratuaren likidazioa
11.3 Berme-aldiko akatsak eta hutsak
B) Kontratua suntsiaraztea
11.4 Kontratua suntsiarazteko arrazoiak

12. KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA
12.1. Kontratuak lagatzea

12.1.1. Mugak
12.1.2. Betekizunak.
12.2. Azpikontratazioa
12.2.1. Azpikontratatu ahal izatea
12.2.2. Azpikontratazioaren baldintzak
12.2.3. Baldintzak haustea
12.2.4. Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean duten betebeharra
12.2.5. Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea
12.2.6. Azpikontratistei edo hornitzaileei eginiko ordainketak egiaztatzea

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1.- ARAUBIDE JURIDIKOA, ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1.1.- Araubide juridikoa.

Hauexek dira esparru-akordioa eta haren kontratu eratorriak eraenduko dituztenak:

a) Administrazio-klausula partikularren agiri hau.

b) Baldintza teknikoen agiria.

c) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

d) 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena.

e) Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena.

f) 2016ko apirilaren 27ko) 2016/679 Erregelamendua (EB Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko erregelamendu orokorra).

g) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

h) 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, lehia babestekoa.

i) Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko Foru Arau Orokorraren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsia.

j) 3/87 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa.

k) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-Bilketari buruzko Araudia.

l) Bizkaiko Foru Aldundiaren 31/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala arautzen duena.

m) 112/2021 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez aldatzen baita honako foru dekretu honen hirugarren xedapen gehigarria: 86/2021 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, ekainaren 15ekoa, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren Egitura Organikoaren Erregelamendua onesten duena.

n) 182/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 23ko a, faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorra sortu eta faktura horiek izapidetu eta kontabilitatean erregistratzeko prozedura arautzen duena.

o) 51/2018 Foru Dekretua, apirilaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren sorrera eta osaketa arautzeko Bizkaiko Foru Aldundiak emandako uztailaren 20ko 125/2016 Foru Dekretua aldarazten baita.

p) 33/2018 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-prozeduran gizarte- eta ingurumen-klausulak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak txertatzeko erregelamendu betearazlea onartzen duena.

q) Zerbitzu, Udal Harreman eta Larrialdietako Zuzendaritza Nagusiaren 35/2018 Zirkularra, ekainaren 25ekoa; honen bitartez honako hau hedatu da: “Administrazio kontratazioen gida praktikoa: klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei lotutakoak txertatzeko irizpideak eta jarraibideak”.

r) 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.

s) 106/2020 Foru Dekretua, abenduaren 1ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez erregulatzen baita nola gauzatu datuen irekiera Bizkaiko Foru Aldundiaren Open Data Bizkaia datu irekien atarian.

t) Kontratazioa arautzen duten eta arlo horretan aplikatzekoak diren Europar Batasuneko, Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Bizkaiko Lurralde Historikoko beste xedapen guztiak.

Administrazio-klausula partikularren agiri hau (karatula eta eranskinak barne), baldintza teknikoen agiria eta ondoren eratortzen den kontratu-dokumentua kontratu-agiriak dira.

Kontratu eratorriak zerbitzu-kontratuak izango dira, 9/2017 Legeak 17. artikuluan xedatzen duenaren arabera (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; hemendik aurrera SPKL).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1.2.- Errekurtsoak.

Kontratazio-organoak emaniko ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute.

Administrazio-errekurtsoen eremuan bi kasu bereizi behar dira:

a) Esparru-akordioen eta haien kontratu eratorrien balio zenbatetsia EHUN MILA EUROkoa (100.000 €) edo GUTXIAGO denean: errekurtsoen araubidea izango da Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa (aurrerantzean, APEL).

b) Esparru-akordioen eta haien kontratu eratorrien balio zenbatetsia EHUN MILA EUROtik (100.000 €) GORAKOA denean: SPKLren 44. artikuluko 2. apartatuko zerrendako egintzen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, nahi bada, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal izango da 15 eguneko epean, SPKLren 50. artikuluan ezarritakoaren arabera. Errekurtso bereziaren bidez aurkaratzeko moduko jarduketen aurka ezin izango da aurkeztu administrazio-errekurtso arruntik.

   Errekurtsoaz arduratzeko eskumena daukan organoa Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala izango da, bai errekurritzen den egintza esparru-akordioari buruzkoa denean, eta bai errekurritzen den egintza Bizkaiko Foru Aldundiaren edo foru-sektore publikoko botere adjudikatzaileetako baten kontratu eratorri bati buruzkoa denean.

   Adjudikazio-prozedura larrialdiko izapidearen bidez egiten bada, ezin izango da jarri kontratazio-arloko errekurtso berezia.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia:

Ezaugarriak. - Kontratazio-arloko errekurtso berezia aukerakoa izango da, eta doakoa izango da errekurtso-jartzaileentzat.

Objektua. - Honako jarduera hauen kontra jar daiteke errekurtsoa:

a) Kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten lizitazio-iragarkien, baldintza-agirien eta kontratu-dokumentuen aurka.

b) Adjudikazio-prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka, baldin eta egintza horiek, zuzenean edo zeharka, adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedurak aurrera jarraitzea eragozten badute edo eskubide zein interes legitimoetan defentsa-gabezia edo kalte konponezina sortzen badute. Nolanahi ere, honako hauetan aurreko inguruabarrak gertatzen direla pentsatuko da: kontratazio-mahaiaren edo kontratazio-organoaren egintza baten bidez erabakitzen denean lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea edo eskaintzak onartzea edo baztertzea, are SPKLren 149. artikuluaren arabera baxuegiak direlako baztertzen diren eskaintzak ere.

c) Adjudikazio-erabakien aurka.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketen aurka, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.

Aurreko apartatuetan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak espedientearen instrukzioaren ardura duen organoari edo kontratazio-organoari jakinarazi ahal dizkiote interesdunek, zuzenbidearen arabera zuzenduak izan daitezen. Nolanahi ere, interesdunek aukera izango dute eurei eragiten dieten irregulartasunak alegatzeko, adjudikazio-egintzaren aurkako errekurtsoa jartzen dutenean.

Legitimazio aktiboa. Edozein pertsona fisikok edo juridikok jar dezake kontratazio-arloko errekurtso berezia, errekurtsoaren xede diren erabakiek zuzenean edo zeharka haren eskubide edo interes legitimo banakakoei zein kolektiboei kalte egin badiete edo kalte egiteko arriskua badago.

Erakunde sindikalek ere izango dute errekurtso hori aurkezteko legitimazioa, baldin eta errekurtsogai diren jarduketa edo erabakien ondorioz atera badaiteke, ondo oinarrituta atera ere, jarduketok edo erabakiok dakartela kontratua exekutatzeko prozesuan enpresak ez dituela beteko prestazioa ematean parte hartzen duten langileekiko betebehar sozialak edo lan-arlokoak. Edozelan era, ukitutako interesak ordezkatzen dituen enpresa-erakunde sektoriala legitimatutzat joko da.

Errekurtsoa jartzeko epea. - Errekurtso-prozedura idazki baten bidez hasiko da, eta idazki hori hamabost egun balioduneko epean aurkeztu beharko da. Epe hori SPKLren 50. artikuluan ezartzen diren arauen arabera zenbatuko da.

Errekurtsoa jartzeko modua. - Errekurtsoa jartzeko idazkian honako hauek adierazi beharko dira: errekurtsoa zein egintzari jartzen zaion, errekurtsoa jartzeko arrazoia zein den, errekurtsogileak zer froga-bitarteko erabili nahi dituen eta, behar denean, zer kautela-neurri eskatzen den. Idazki horrekin batera SPKLren 51. artikuluan zehazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

Errekurtsoa jartzeko lekua. - Errekurtsoa jartzeko idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (hemendik aurrera APEL) 16.4 artikuluan ezartzen diren tokietan aurkeztu ahalko da. Halaber, kontratazio-organoaren erregistroan edo errekurtsoa ebazteko eskumena

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

duen organoaren erregistroan aurkeztu ahalko da. Aipatutako bi horiek ez beste erregistro batean aurkeztutako idazkiak ahalik lasterren jakinarazi beharko zaizkio auzitegiari.

Izapidetzea. - Errekurtso hori izapidetzeko, SPKLren 56. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia ebazteko eskumena daukan organoa. - Errekurtsoaz arduratzeko eta hura ebazteko eskumena daukan organoa Kontratuei buruzko Errekurtsoen Auzitegi Administratibo Forala izango da, bai errekurritzen den egintza esparru-akordioari buruzkoa denean, eta bai errekurritzen den egintza Bizkaiko Foru Aldundiaren edo foru-sektore publikoko botere adjudikatzaileetako baten kontratu eratorri bati buruzkoa denean.

Errekurtso bereziaren ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezingo da jarri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

1.3.- Jurisdikzio eskuduna.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak edukiko du administrazio-kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari, haien ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren auzigaiak ebazteko eskumena.

Era berean, gai hauen inguruan sortzen diren arazoez administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena arduratuko da, baldin eta gaiok kontratu pribatuak prestatzeari eta adjudikatzeari badagozkie.

Jurisdikzio-ordena zibilak edukiko du honako hauek ebazteko eskumena: kontratu pribatuen ondorioei eta haien azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren eztabaidak; salbuespena: kontratu-aldaketak, noiz eta aldaketok aurkaratzeko oinarria SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea denean, baldin eta ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten objektua izan behar zuela.

2.- ESPARRU-AKORDIOAREN ALDERDIAK.

2.1.- Kontratatzeko eskumena. - Kontratazio-organoa zein den baldintza-agiri honen karatulako “C” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN KONTRATAZIO-ORGANOA) zehazten da.

Esparru-akordioaren kontratu eratorria adjudikatzeko eskumena atxikitako erakundean legeria aplikagarriaren arabera kontratazio-eskudantziak dituen organoak edukiko du.

2.2.- Esparru-akordioaren arduraduna. - Hauetako bat izango da: baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) adierazten dena edo kontratazio-organoak esparru-akordioa exekutatzeko zehazten duena.

2.3.- Kontratatzailearen profila. - Baldintza-agiri honen karatulako “T” apartatuan (KONTRATATZAILEAREN PROFILA) zehazten dena.

Profilera sartzeko, kontratazio-organoak kontratuen inguruan egiten duen lanari buruzko datuak eta informazioak biltzen dituen BFAren web orrira jo daiteke.

https://www.bizkaia.eus/eu/web/contratacion-publica/

Horrez gainera, Euskadiko kontratazio plataformatik ere sartu ahal izango da:

https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

2.4.- Erakunde jasotzaileak. - Baldintza-agiri honen karatularen eranskinean zehazten da zein diren administrazio-klausula partikularren agiri honen zerbitzuak jasoko dituztenak.

2.5.- Kontratatzeko gaitasuna.

Pertsona naturalek edo juridikoek, izan espainiarrak edo izan atzerrikoak, egin ditzakete kontratuak sektore publikoarekin, baina horretarako jarduteko gaitasun osoa eduki behar dute, ez dute kontratatzeko debekuan sartuta egon behar, eta ekonomia, finantza, teknika zein lanbide arloetako kaudimena ziurtatu behar dute, salbu eta baldintza-agirian adierazten bada egiaztapena ez dela nahitaez aurkeztu behar. Pertsona horiek kasu bakoitzean eskatzen den enpresa-gaikuntza edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute.

a) Pertsona juridikoak: pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sortze-arauen arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

b) Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresak: sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna edukiko dute Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa emateko. Estatu batek bere lurraldean ezarrita dauden enpresei baimen berezi bat edo organizazio jakin batekoak izatea eskatzen badie bertan dena delako zerbitzua emateko, enpresek betekizun hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

c) Europar Batasunetik kanpoko enpresak: nazioarteko akordioak direla-eta Espainiak dauzkan betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako batekoak ez diren pertsona fisikoek edo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute egoitza duten estatuak bere aldetik onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan aipatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko erakundeen kontratazioetan, modu berean funtsean.

d) Enpresa-elkarteak: sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izango dituzte asmo horrekin aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteek, eta horretarako ez dute eskritura publikorik egin beharko, harik eta kontratua haien alde adjudikatzen den arte.

Aldi baterako elkartea eratuta lehiatzen diren enpresek betebehar solidarioa edukiko dute, eta enpresa-elkartearen izenean ariko den ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko kontratua azkendu arteko ahalorde asketsiarekin. Nolanahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahal izango dituzte enpresek. Lizitazioari begira, lizitaziora aldi baterako elkartea osatuta aurkeztu nahi duten enpresek elkartearen partaideen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzak zenbateko partaidetza duen ere. Gainera, kontratua adjudikatzen bazaie, aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela adierazi beharko dute.

Aldi baterako enpresa-elkarteek kontratua azkendu arte iraun behar dute, gutxienez. Baldin eta kontratu eratorrietako bat luzeagoa bada esparru-akordioa baino, betebehar hori kontratu eratorriak indarrean dirauen arte luzatuko da.

3.- ESPARRU-AKORDIOAREN OBJEKTUA, EXEKUTATZEKO EPEA ETA LUZATZEKO AUKERA.

3.1.- Esparru-akordioaren objektua.

Esparru-akordioaren objektua da zerbitzua jasotzen duten erakundeek kontratuetan bete beharko dituzten baldintza orokorrak, kontratazio-prozedura eta exekuzio-araubidea finkatzea. Zerbitzu hori baldintza-agiri honen karatulako “A” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN OBJEKTUA) eta preskripzio teknikoen agirian azaltzen da.

Esparru-akordioaren objektua ez bada loteka bereizten, baldintza-agiri honen karatulako “A” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN OBJEKTUA) justifikatzen da.

Esparru-akordioaren objektua lotetan zatitzen bada, enpresa lizitatzaileak aukera bi edukiko ditu: batetik, kontratuaren objektua osorik hartzen duen eskaintza bat egin dezake, eta eskaintza hori lotetan banatu; bestetik, objektu osoko lote baterako edo gehiagorako eskaintza egin dezake.

Adjudikazioa loteka egiteko mugak eta horri buruzko arauak baldintza-agiri honen karatulako “A” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN OBJEKTUA) ezartzen dira.

Loteka adjudikatzen diren kontratuetan (ez bada besterik aurreikusten baldintza-agiri honen karatulan), lote bakoitzeko kontratu bat izango da. Salbuespena: eskaintza integratzailea aurkezten bada, eskaintza guztiak kontratu bakarrean bilduko dira.

3.2.- Esparru-akordioaren exekuzio-epea.

Esparru-akordioa exekutatzeko epea baldintza-agiri honen karatulako “M.1” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN EXEKUZIO-EPEA) adierazten da.

3.3.- Esparru-akordioa luzatzeko aukera.

Aukera hau baliatuz gero, baldintza-agiri honen karatulako “N.1” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOA LUZATZEKO AUKERA) ezartzen den bezala aplikatuko da.

Kontratazio-organoak erabakiko du akordioa luzatzea. Erabakiz gero, luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baina ezinbestekoa izango da aurreabisua egitea esparru-akordioaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago, baldintza-agiri honen karatulan aldi luzeagoa ezarri ezean.

Inolaz ere ez da luzapenik egongo alderdi bien isilbidezko adostasunaren bitartez.

4.- ESPARRU-AKORDIOAREN LIZITAZIO-AURREKONTUA, BALIO ZENBATETSIA ETA AURREKONTUKO KONTSIGNAZIOA.

4.1.- Esparru-akordioaren lizitazio-aurrekontua eta balio zenbatetsia.

Esparru-akordioaren balio zenbatetsia baldintza-agiri honen “D” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA) zehazten da, kontratazio-organoaren eskumena eta prozeduraren publikotasuna zehazteko. Kopurua orientagarria da, eta ez dakar ezein betebeharrik kontratatzeko edota exekutatzeko, ez Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, ez atxikitako erakundeentzat.

4.2.- Aurrekontuko kontsignazioa.

Esparru-akordioaren izaera kontuan hartuta, ez dago kontsignaziorik aurrekontuan.

Hala ere, kontratu eratorriei dagokienez, atxikitako erakunde bakoitzeko organo eskudunak edukiko du gastua baimentzeko eta xedatzeko eta ordainketa agintzeko eskumena. Baldin eta kontratu eratorria esparru-akordioa exekutatzen hasi aurreko ekitaldian formalizatzen bada, adjudikazioa egin ahal izateko honako baldintza hau bete

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

behar da: kontratuaren exekuzioa hasten den ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egon behar da kontratu honen exekuzioaren eragiten dituen betebeharrak finantzatzeko.

5.- ESPEDIENTEAREN IZAPIDETZEA ESPARRU-AKORDIOA ADJUDIKATZEKO.

Esparru-akordioa adjudikatzeko espedientea baldintza-agiri honen karatulako “E” apartatuan (ESPARRU-AKORDIOAREN IZAPIDETZEA) zehazten denaren arabera izapidetuko da.

6.- ESPARRU-AKORDIOA EGINGO DEN ENPRESA(K) AUKERATZEA.

6.1.- Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publikotasuna, informazioa eta konfidentzialtasuna.

1. Kontratazio-organoak modu berean tratatuko ditu lizitatzaileak eta hautagaiak, inolako diskriminaziorik gabe, eta gardentasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioen arabera jardungo du.

2. Kontratazioa nola egin pentsatzean, asmoa ez da izango publikotasun-betekizunak edo bidezko adjudikazio-prozedurari buruzkoak saihestea, ez eta lehia artifizialki murriztea ere, dela enpresa batzuk lagunduz, dela beste batzuk bidegabe kaltetuz.

3. Kontratazio-organoak adjudikazio-prozedura guztian babestuko du lehia askea.

4.- Kontratazio-organoak ezin izango du zabaldu enpresek emaniko informaziorik, baldin eta haiek informazio hori isilpekotzat jo badute beren eskaintza aurkeztean. Isilpekoak izango dira, besteak beste, sekretu teknikoak eta merkataritzakoak, eskaintzen alderdi isilpekoak eta lizitazio-prozedura honetan zein geroko batean lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio.

Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-eginbeharra ezingo zaio ezarri adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osoari, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txosten eta agiri guztiei ere. Zabalkunde murriztua duten dokumentuei baino ezin izango zaie aplikatu eginbehar hori. Beraz, nornahik eskuratzeko moduko dokumentuei ezin izango zaie aplikatu.

Kontratistak isilpean gorde behar du kontratua exekutatzen den bitartean eskuratzen duen informazioa, baldin eta informazio hori isilpekotzat jo bada baldintza-agirietan edo kontratuan, edo informazioaren beraren izaera dela-eta isilpean gorde behar bada. Eginbehar hori bost urtez egongo da indarrean informazioaren berri jakin ondoren, kontratuan edo baldintza-agirietan aldi luzeagoa ezarri ezean (nolanahi ere, aldia zehatza eta mugatua izan behar da).

Bizkaiko Foru Aldundiak eta hirugarren laguntzaileek ematen dituzten informazio guztiak isilpean gorde beharko dira, eta ezin izango dira zabaldu ez ustiatu Bizkaiko Foru Aldundiak berariazko baimena eman gabe. Konpromiso hau urratzen duten jokabide guztiak desleialtzat joko dira, Lehia desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legeak 14. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz (horrekin lotuta dago Enpresa-sekretuen otsailaren 20ko 1/2019 Legea).

6.2.- Adjudikazio-prozedura:

6.2.1.- Prozedura. - Adjudikatzeko prozedura baldintza-agiri honen karatulako “F” apartatuan (ADJUDIKATZEKO PROZEDURA) ezarrita dago. Prozedura irekian, interesa duen edozein enpresak aurkeztu ahalko du proposamena, eta esparru-akordioan ezarritakoa ezin izango da negoziatu lizitatzaileekin.

6.2. 2.- Adjudikazio-irizpideak. - Adjudikazio-irizpide asko erabiliko dira kontratuak adjudikatzeko, kalitatea-prezioa erlazio onena oinarritzat harturik; hala ere, salbuespen gisa adjudikazio-irizpide bakarra erabiltzen denean, irizpide hori kostuekin loturik egon beharko da: prezioa izan liteke edo, bestela, errentagarritasunean oinarrituriko irizpide bat, hala nola bizi-zikloaren kostua. Irizpide hauek baldintza-agiri honen karatulako “H” apartatuan (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK) zehazten dira.

Adjudikazio-irizpideen aplikazioa.

Balio-judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak ebaluatzeko (esleitua duten haztapena handiagoa delako automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei dagokiena baino) aukera bi izango dira:

a) Kualifikazio egokia duten adituen batzorde bat eratuko da, gutxienez hiru kidek osatua; kide horiek kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuetakoak izan daitezke, baina inolaz ere ezin izango dira egon kontratua proposatzen duen organoari atxikita,

b) organismo tekniko espezializatu bat eratuko da.

Batzordea edo organismo tekniko espezializatua baldintza-agiri honen karatulako “H” apartatuan (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK) zehaztuko da.

6.3.- Enpresa interesdunen proposamenak:

Interesdun batek proposamena aurkezteak berekin dakar hark inolako baldintzarik gabe onartzen duela administrazio-klausula partikularren agirian ezartzen dena, bai eta klausula edo baldintza horien guztien edukia ere, salbuespenik eta erreserbarik gabe.

Gainera, proposamena aurkezteak berekin dakar (interesdunak beren beregi kontra dagoela adierazi ezean) Bizkaiko Foru Aldundiari baimena ematea (Kontratazio Zerbitzuaren bitartez) prozedura honetan informazio hauek biltzeko bitarteko elektronikoak erabiliz: a) enpresaren IFZ eta ordezkariaren edo enpresaburu

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

indibidualaren NANa; b) lizitatzaileen erregistroetako datuak; c) enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. Baimen horren bitartez behar diren egiaztagiriak lortu ahal izango dira, kontratazio-espedientean sartzeko. Kontratazio-organoak ezin baditu egiaztagiriok eskuratu, lizitatzaileak aurkeztu beharko ditu.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du aurkeztu proposamen bat baino gehiago, aldaeren onarpenaren gainean xedatutakoa gorabehera. Halaber, ezin izango du aurkeztu proposamenik beste lizitatzaile batzuekin batera, aldi baterako elkartea sortuta, baldin eta bakarka aurkeztu badu, eta ezin izango du egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan. Arau horietako bat hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek sinatutako proposamenik batere.

6.3.1.- Proposamena.- Proposamenak elektronikoki aurkeztu behar dira Bizkaiko Foru Aldundiaren lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez. Lizitazio elektronikoaren web helbidea lizitazioaren iragarkian argitaratuko da.

Eskaintzak Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen duen egiaztagiri elektroniko aitortu edo kualifikatu baten bidez sinatu behar dira. https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/certificadosEnt

Enpresa lizitatzaile baten ziurtagiria ez bada agertzen Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen dituenen artean, laguntza teknikora jo beharko du (https://www.bizkaia.eus/eu/web/contratacion-publica/harremana) aurrerapen nahikoarekin (gutxienez eskaintzak aurkezteko aldia amaitu baino astebete lehenago), Izenpe SA ziurtapen-enpresak ziurtagiri horren autentifikazio-protokoloa kudea dezan.

Eskaintza elektroniko batean eransten den fitxategi bakoitzak 75 MB eduki ditzake gehienez, eta eskaintza osoak ezin du eduki 400 MB baino gehiago.

Plataformak ez du ezartzen mugarik eskaintzari erantsi ahal zaizkion artxiboen kopuruari dagokionez.

Honako formatu hauetako dokumentuak erantsi ahal zaizkie eskaintzei:

- doc | .docx : Microsoft Word-eko jatorrizko testu-formatuak.
- .xls | .xlsx : Microsoft Excel-eko kalkulu-orrien jatorrizko formatuak.
- .ppt |.pptx : Microsoft PowerPoint-eko jatorrizko aurkezpen-formatuak.
- .rtf : Testu-formatu estandarra.
- .sxw : Star Office-eko jatorrizko testu-formatua.
- .abw : Abiword-eko jatorrizko testu-formatua.
- .pdf : Adobe Acrobat-eko jatorrizko dokumentu-formatua.
- .jpg : Formatu grafikoa.
- .bmp : Microsoft Windows-eko jatorrizko formatu grafikoa.
- .tiff | .tif : Formatu grafikoak.
- .odt : OpentDocument-eko testu-formatua.
- .ods : OpentDocument-eko kalkulu-orrien formatua.
- .odp : OpentDocument-eko aurkezpen-formatua.
- .odi : OpentDocument-eko irudi-formatua.
- .zip : Winzip-eko jatorrizko trinkotze-formatua, Microsoft Windows-ek onartua.
- .dwg : AutoCAD-eko marrazketa-formatua.

Aukera gisa, beste formatu batzuetako fitxategiak eransteko, fitxategi trinkotu batean bil daitezke (ZIP).

Lizitatzaileen ardura da eskaintzak birusik gabe bidaltzea.

Hala ere, fitxategi batek birusa edukitzeak ez du berez eragingo eskaintza baztertuta geratzea, baldin eta haren edukia eskuratu ahal bada.

Kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Mahaiak hartuko du horren gaineko erabakia.

6.3.2.- Eskaintzak aurkezteko epea.-

Baldintza-agiri honen karatulako “P” apartatuan (PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA) ezartzen dena bete behar da.

Eskaintzak egun osoan (24 ordu) aurkeztu ahal izango dira, asteko 7 egunetan. Eskaintza aurkeztu den eguna eta ordua Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoak emandako frogagirian agertzen direnak izango dira, hain zuzen ere eskaintza jasotzeko eragiketa amaitzen den unekoak.

Bitarteko elektronikoak erabiliz gero, bi modutara bidal daitezke eskaintzak: osorik, une bakar batean, edo bi fasetan. Bi fasetan bidaliz gero, lehenik eta behin eskaintzaren «hash» aztarna elektronikoa bidali beharko da —hori jasotzearekin batera eskaintza aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako— eta gero eskaintza bera, gehienez

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

24 ordu igaro baino lehen; bigarren igorpena adierazitako epealdian egiten ez bada, eskaintza bertan behera utzi dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren aztarna elektronikoa (hash) honako hau da: datu multzo bat, zeinaren sortze-prozesuak bermatzen baitu zalantzarik gabe erlazionatzen direla eskaintzaren edukiarekin berarekin eta aukera ematen dutela eskaintzaren edukian gertatzen diren aldaketak detektatzeko, eskaintzaren osotasuna bermatuz; izan ere, aukera ematen du egiaztatzeko edukia ez dela aldatu lizitatzaileak bidali zuen unetik bertatik.

Lizitatzaileek eskaintza bi fasetan bidaltzea erabakitzen badute, adibidez, eskaintzaren aztarna elektronikoa ("hash-a") bidali beharko dute eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen, adibidez tamainaren, sareko konexio-arazoen eta abarren ondorioz eskaintza transmititzeko zailtasunak aurreikusten direlako. Kasu horretan, 24 ordu edukiko dituzte eskaintza bidaltzeko, "hash" aztarna elektronikoa contratacion@bizkaia.eus posta helbidera bidaltzen dutenetik, eta bidalketa hori eskaintzak aurkezteko epealdia amaitu baino lehen egin beharko da nahitaez.

Lizitatzaileek beren eskaintzaren "hash" aztarna elektroniko transkribatua (ez irudia) bidali beharko dute contratacion@bizkaia.eus helbide elektronikora, zer espediente-zenbakiri dagokion zehaztuta; gainera, lizitatzailearen identifikazio-datuak adierazi beharko dira, Bizkaiko Kontratazioaren Zentral Foralak egiaztatu ahal izan dezan aztarna digital hori bat datorrela aurkeztutako eskaintzaren aztarnarekin, eskaintza bidali ondoren.

Eskaintza baten fitxategia kaltetuta badago eta ezin bada haren edukian sartu, lizitatzailearen ekipoan automatikoki sortutako tokiko kopiara jo daiteke, eskaintzaren aztarna digitala kontratazio-organoaren esku dagoenarekin bat datorrela egiaztatuta.

6.3.3.- Aldaerak.- Baldintza-agiri honen karatulako "L" apartatuan (ALDAERAK BAIMENTZEA) ezartzen dena bete beharko da.

6.3.4.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

6.3.4.1.- Arau orokorrak:

Gutun-azalen kopurua.

GUTUN-AZAL BI: adjudikazio-irizpide bakar bat ezartzen bada edo ezarritako adjudikazio-irizpide guztiak automatikoki kuantifikatu ahal badira:

"A" GUTUN-AZALA (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZALA (automatikoki kuantifika daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

HIRU GUTUN-AZAL:automatikoki kuantifika daite(z)keen eta automatikoki ezin kuantifika daite(z)keen irizpidea(k) ezartzen bad(ir)a:

"A" GUTUN-AZALA (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa).

"B" GUTUN-AZALA (automatikoki kuantifika daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

"C" GUTUNAZALA (automatikoki kuantifikatu ezin daite(z)keen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa).

Baldintza-agiri honen karatulako "H" apartatuan (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK) zehazten da zer dokumentazio behar den adjudikazio-irizpideak haztatzeko.

Hizkuntza.

Atzerriko enpresek gaztelaniara edo euskarara modu ofizialean itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

6.3.4.2.- "A" GUTUN-AZALEAN (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa) honako dokumentazio hau sartu behar da:

1.- Kontratazio-agiri europar bakarra (KAEB), sinatzeko ahalorde nahikoa duenak sinatua. Agiri hori Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (EE) 2016/7 Exekuzio Erregelamenduak ezartzen du (EBAO L 3/16, urtarrilaren 3koa). KAEB agiria erregelamendu horren 2. ERANSKINAren arabera bete behar da. Helbide elektroniko honetan kontsulta daiteke:

https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

KAEB betetzeko, lagungarria da Estatuko Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak egindako gida, hain zuzen ere, 2016ko apirilaren 6ko ebazpen baten bidez onetsi zen Gomendiokoa (BOEn argitaratu zen, 85. zenbakian, 2016ko apirilaren 8an).

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2016-3392

XML fitxategia, prozedura honetarako formulario berezia duena, kontratatzailearen profilean eskuratu dezakete lizitatzaileek.

Formularioaren II., III., IV. eta VI. atalak bete beharko dira. IV. atala X batez markatutako aukeraren arabera beteko da (IV. ataleko **α** sekzioa bakarrik bete behar da; IV. ataleko beste sekzioak ez dira bete behar).

Enpresa lizitatzaile batek beste enpresa batzuen kaudimenera eta baliabideetara jotzen duen kasuetan, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

beharko du, eta bertan kasu hauetarako behar den informazioa eman behar dute Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

Zenbait enpresa aldi baterako elkarte bat eratuta aurkezten badira lizitaziora, elkartea osatzen duten enpresetako bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu; beraz, enpresa guztiek aurkeztu beharko dute KAEB agiriaren formulario normalizatu bana.

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango diete egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko, baldin eta uste badute arrazoizko zalantzak daudela adierazpena indarrean egoteari buruz edo haren fidagarritasunari buruz, hori prozeduraren garapen egokirako beharrezkoa denean eta, nolanahi ere, kontratua adjudikatu baino lehen, APELen 69. artikuluan ezartzen den moduan.

Hori guztia gorabehera, enpresa ondoren aipatuko diren erregistro eta datu-baseetan inskribatuta edo jasota egonez gero, ez du edukiko zertan aurkeztu toki horietan bildutako datuen frogagiririk ez bestelako dokumentu-frogarik, baldin eta erakundeek doan eskuratu ahal badituzte: Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala; Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroa; Europar Batasuneko estatu baten datu-baseren bat, hala nola, enpresaren espediente birtual bat, dokumentuen biltegiratze elektronikoko sistema bat edo aurresailkapeneko sistema bat.

Gainera, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofiziala edo EAEko Enpresa Sailkatuen Lizitatzaileen Erregistro Ofizialean inskribaturik dauden enpresek ez dute edukiko erregistroan eguneraturik dauden datuak eman beharrik, baldin eta horren berri ematen badute KAEBren formulario normalizatuan.

Aurreko apartatuetan aipatzen diren gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta beren horretan iraun behar dute kontratua burutzen denean ere.

Edozelan ere, KAEB aurkezteak konpromiso hau ekarriko dio lizitatzaileari; kontratua berari adjudikatzea proposatuz gero, hark ordezten dituen dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

2.- Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bidez hark adierazten baitu betetzen dituela kontratazio hau arautzen duten agirietan ezartzen diren baldintzak, eta onartzen dituela agiri horien onarpenak berekin dakartzan konpromisoak. (2. ERANSKINA).

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

3.- Aldi baterako enpresa-elkarteek honako hauek adierazi beharko dituzte beste dokumentu batean: elkarteko kide bakoitzaren izena eta inguruabarrak, eta bakoitzak daukan partaidetza-ehunekoa; gainera, kontratuak indarrean dirauen artean Administrazioaren aurrean elkartearen ordezkaritza osoa edukiko duen pertsona izendatu beharko dute. Halaber, konpromisoa hartuko dute kontratua adjudikatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko. Horretarako, 7. ERANSKINA hartuko dute eredutzat.

4.- Talde bereko enpresen zerrenda.- Sozietate-talde bateko kideak diren pertsona juridikoen eskaintzak baxuegiak direnez ebazteko, lizitatzaileek taldeko sozietateen zerrenda aurkeztu beharko dute (2. ERANSKINA).

5.- Kontratua Espainian gauzatuko bada, atzerriko enpresek kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortzen diren gorabehera guztietarako Espainiako ordena guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla eta uko egiten diotela lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari dioen adierazpena aurkeztu beharko dute.

6.3.4.3.- "B" GUTUN-AZALEAN (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) honako dokumentazio hau sartu behar da:

Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideak haztatzeko behar diren agiri guztiak; baldintza-agiri honen karatulako "G.1" apartatuan (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) zehazten dira.

Eskaintzako daturen bat isilpekoa bada, fitxategi bereizi batean banakatu beharko da, eta fitxategiaren izenaren hasieran ISILPEKOA hitza ezarri behar da. Eskaintza ekonomikoa ez da isilpekoa izango.

Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak honako baldintza hauek bete behar ditu:

a) Partida bereizi legez agertu behar da jasanarazi beharreko balio erantsiaren gaineko zerga.

b) Eskaintza ekonomikoa 1. ERANSKINEKO ereduaren arabera egin behar da (ezin da gainditu lizitazioaren aurrekontua), sinatu egin behar da eta data ipini behar zaio.

c) Ondorio guztietarako, aurkezten den eskaintzan honako hauek sartzen direla ulertuko da: prestazioaren zenbatekoa, jasanarazi ahal diren gastuak, beste kostu batzuk, aseguruak, aduana-zergak, lizentziak eta baimenak.

6.3.4.4.- "C" GUTUN-AZALEAN (automatikoki kuantifikatu ezin daitekeen/daitezkeen irizpideari/irizpideei buruzko dokumentazioa) honako dokumentazio hau sartu behar da:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Automatikoki kuantifikatu ezin daitezkeen irizpideak haztatzeko behar diren agiri guztiak; baldintza-agiri honen karatulako "H.2" apartatuan (AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK) zehazten dira.

Eskaintzako daturen bat isilpekoa bada, fitxategi bereizi batean banakatu beharko da, eta fitxategiaren izenaren hasieran ISILPEKOA hitza ezarri behar da.

Lizitatzaile batek kontratuaren zati bat azpikontratatzeko asmoa badauka, zein den zehaztu behar du eskaintzan eta datu hauek eman behar ditu: kontratuaren zati horren zenbatekoa eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila, kaudimen profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztua.

6.4.- Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea prozeduran.

Prozedura baten izapidetzean zehar (eta esparru-akordioa formalizatu aurretik) enpresa batean bat-egitea edo zatiketa gertatzen bada edo enpresa-ondarearen nahiz jarduera-adar baten eskualdatzea, orduan enpresa lizitatzailearen ondorengo izango dira, lizitazio-prozeduran, sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondorioz sortua, zatiketaren onuraduna edo enpresa-ondarea nahiz jarduera-adarra eskuratzen duena, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzeko debekurik ez badu eta kaudimena egiaztatzen badu, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko eskatzen den moduan.

Aldi baterako enpresa-elkarteen ondorengotzari dagokionez, berriz, SPKLren 69.8 artikuluan ezartzen dena beteko da.

6.5.- Eskaintzen balorazioa.

6.5.1.- Organo eskuduna.

Eskaintzak baloratzeko eskumena Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak dauka. Kontratazio mahai gisa jardungo du eta honako kide hauek edukiko ditu:

Mahaiburu titularra: Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu Korporatiboen Zuzendariordetzaren arduraduna.

Ordezkoa: Funtzio Publikoaren zuzendariorde nagusia edo Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailean kontratazioaren arloko eskumena daukan zerbitzuko burua.

Mahaikide titularra: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Kontratazio Zerbitzuko atal bateko burua (Kontratazioko Lege Aholkularitzarako Atalekoa ez beste edozein) edo zerbitzu horretan ari diren goi-mailako teknikarietako bat.

Mahaikide titularra: Ogasun eta Finantza Sailean fiskalizazioaren arloko eskumena dauka zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Gastuen fiskalizazioan aritzen den ataleko burua edo Fiskalizazio Zerbitzuan kontrol ekonomikoan eta aurrekontu-kontrolean aritzen diren goi-mailako teknikarietako bat.

Mahaikide titularra: Kontratazioko Lege Aholkularitzarako Ataleko burua. Honek idazkaritza-lanak eta aholkularitza juridikoa hartuko ditu bere gain.

Ordezkoa: Kontratazio Zerbitzuko beste edozein ataletako burua edo zerbitzu horretan ari diren goi-mailako teknikarietako bat.

Bizkaiko Kontratazioaren Zentral Foralaren bilerak urrunetik egin ahal izango dira, baldin eta baliabide elektronikoen bitartez bermatzen badira kideen nortasuna, kideen adierazpenen edukia, adierazpen horiek egiten diren unea nahiz kideen arteko elkarreragitea eta interkomunikazioa denbora errealean eta bilkurak irauten duen bitartean bitartekoak eskuragarri egongo direla.

6.5. 2.- Proposamenak irekitzea eta Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren jarduna.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik hogei egun igaro aurretik ireki beharko dira.

"B" GUTUN-AZALAK jendaurreko egintzan irekiko dira. Egintza nola, non eta noiz (eguna eta ordua) egingo den kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarki baten bidez jakinaraziko da.

A) "A" GUTUN-AZALA IREKITZEA:

Lehenik eta behin, Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala eratuko da, bidezko deialdia egin ondoren, "A" GUTUN-AZALAK (aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa) irekiko ditu bilera pribatu batean eta dokumentuak kalifikatuko ditu. Beraz, mahaiburuak gutun-azal horiek irekitzeko aginduko du. Aurkeztutako dokumentazioan akats konpongarriak badaude edo zerbait falta bada, akatsak zuzentzeko edo falta dena aurkezteko eskatuko du. Errekerimendua kontratatzailearen profilean argitaratuko du; horrez gainera, beste bide batzuk ere erabili ahal izango ditu. Lizitatzaileek Bizkaiko Foru Aldundiaren lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez egin beharko dituzte zuzenketak. Dokumentazioan diren akatsak konpontzeko hiru (3) eguneko epealdia egongo da, errekerimendua kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

B) “C” GUTUN-AZALA IREKITZEA (automatikoki kuantifika EZIN daitezkeen edo balio-judizio baten arabera kuantifikatzekoak diren irizpideak daudenean):

Bizkaiko Kontratazio Zentral Forala bilkura pribatuan eratuko da. Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioaren akatsak eta aurkeztu gabekoen arazoak konpondu ondoren (arazorik egonez gero) dokumentazioa baloratuko du eta gero berariazko ebazpena emango du: zer lizitatzaile onartzen diren lizitaziorako, zein ez diren onartzen eta azken horiek zergatik ez diren onartzen.

Jarraian, bilkura pribatu berean, mahaiburuak aginduko du ireki eta azter daitezela onarturiko enpresa lizitatzaileen “C” GUTUN-AZALAK.

Ondoren, espedientea sustatu duen sailaren esku jarriko ditu eskaintzak, azter ditzan eta irizpideak haztatu ditzan, Aldundiarentzat eskaintzarik hoberena zein den erabakitzeko. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu proposamenak baloratzeko.

Nolanahi ere, SPKLren 146.2 a) artikuluan aipatzen diren adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak esku hartu ahal izango du artikulu horretan bertan zehazten diren kasuetan.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira “C” GUTUN-AZALEAN geroago (“B” GUTUN-AZALA irekitzen denean) baloratu beharreko dokumentazioa sartzen duten lizitatzaileak.

C) “B” GUTUN-AZALA IREKITZEA:

a) Zenbait adjudikazio-irizpide ezarri badira (automatikoki kuantifika daitezkeenak eta automatikoki kuantifikatu EZIN direnak), honela jokatuko du Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak:

Kontratazio Zentralean automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak haztatzeko eskatutako txostena(k) jaso ondoren Zentrala eratuko da eta, ekitaldi publiko batean, honako hauen berri emango du: lehenik eta behin, zer lizitatzaile onartzen diren lizitaziorako, zein ez diren onartzen eta zergatik ez diren onartzen; gero, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideen arabera eskaintzei esleitutako haztapena.

Lizitaziorako eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Ondoren, “B” GUTUN-AZALAK irekiko dira (automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa) eta eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. GUTUN-AZAL horietako dokumentazioa baldintza-agiri honen karatulan adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko da.

Egintza horren hurrengo egunetik aurrera bi (2) egun balioduneko epealdia egongo da ekitaldian izan diren lizitatzaileek egintzari buruz nahi dutena adierazteko idatziz.

b) Adjudikaziorako automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideak bakarrik ezarri badira, Mahaia eratuko da eta, jendaurreko egintza batean, jakinaraziko du zer lizitatzaile onartu diren, zein baztertu diren eta zergatik baztertu diren, eta gero B GUTUN-AZALAK irekiko ditu, aurreko a) kasuan azaldu den modu berean.

Eskaintza ekonomikoak ez bazaizkio arloan eskumena daukan sailari bidali behar, berak azter ditzan, Kontratazio Zentralak berariaz adieraziko du zein den prezio baxueneko eskaintza eta esparru-akordioa berari adjudikatzeko proposamena egingo du. Nolanahi ere, gero eskaintza baxuegiei buruzko arauak aplikatuko dira. Egintza horren hurrengo egunetik aurrera bi (2) egun balioduneko epealdia egongo da ekitaldian izan diren lizitatzaileek egintzari buruz nahi dutena adierazteko idatziz.

Bizkaiko Kontratazioaren Zentral Foralaren egintzen emaitzen publikotasuna

Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak kalifikazioen, onarpenen eta bazter utzitakoen gainean egiten dituen akta guztiak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Kontratatzailearen profila iragarki-taula gisa erabiliko da.

6.5.3.- Eskaintza baxuegiak.

SPKLren 149. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da zein diren eskaintza baxuegiak. Kontratazio-organoak sumatzen badu eskaintza bat ez dela bideragarria, aurkeztu den moduan baxuegia delako, lizitazio-prozeduratik baztertu ahal izateko, ezinbestekoa izango da aurretik SPKLren 149. artikuluan ezartzen den prozedura izapidetzea.

Baldin eta baldintza-agirietan ez bada ezartzen beste zehaztapen-modurik eta adjudikazio-irizpide bakarra prezioa bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. eta 86. artikuluetan ezartzen diren arauak aplikatuko dira eskaintzak baxuegitzat jotzeko , harik eta SPKLren Erregelamendua onetsi eta indarrean jarri arte.

Zenbait adjudikazio-irizpide erabiltzen direnean, berriz, baldintza-agiri honen karatulako “H” apartatuan (ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK) ezartzen dena aplikatuko da. Hor zenbait parametro objektibo ezartzen dira eskaintzak (osorik hartuta) baxuegitzat jotzeko.

Talde bereko (Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluaren arabera) kide diren enpresa batzuek zeinek bere eskaintza aurkezten badute, haietako baxuena bakarrik hartuko da kontuan baxuegiak diren eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko orduan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

taldekoak ez diren baina aldi baterako elkartea osaturik haiekin batera datozen beste enpresa batekin edo batzuekin.

Kontratazio Zentralak ustez baxuegia den eskaintzaren bat identifikatzen badu, lizitatzaileari eskatuko dio arrazoitu dezala, datu zehatzak emanez, zergatik diren hain baxuak prezioak edo kostuak edo eskaintza baxuegia izatea eragin duen beste parametroren bat, eta epealdi nahikoa emango dio horretarako, beharrezkoak diren informazioak eta dokumentuak aurkezteko.

Kontratazio Zentralak halako eskaintza aurkeztu duten lizitatzaileei eskatu ahal izango die justifikatzeko eskaintzaren prezioa edo kostuak baxuak izatea eragiten duten alderdiak, batez ere honako balio hauek:

a) Fabrikazio-prozedurak, emandako zerbitzuek edo eraikuntza-metodoak ahalbidetutako aurrezpena.

b) Produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak gauzatzeko hartutako irtenbide teknikoak edo baliatutako inguruabar bereziki positiboak.

c) Proposatutako irtenbideen originaltasuna eta berrikuntza, produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko.

d) Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren eta azpikontratazioaren arloan aplikatu beharreko betebeharren errespetua; ez dira justifikagarriak izango merkatuko preziotik behera daudenak ez SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa urratzen dutenak.

e) Estatuaren laguntza bat jasotzeko aukera.

Prozeduran kasuan kasuko aholkularitza teknikoa eskatu beharko da.

Kontratazio-organoek atzera botako dituzte baxuegiak diren eskaintzak, egiaztatzen badute baxuegiak izateko arrazoia dela azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutela edo ez dituztela betetzen ingurumen-arloko, gizarte-arloko edo lan-arloko betebeharrak (estatukoak zein nazioartekoak), barnean dela sektore bakoitzean indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa, SPLKren 201. artikuluan ezartze dena aplikatuz.

Kontratazio Zentralak lizitatzaileak epealdiaren barruan aurkeztutako informazio eta dokumentazio guztia aztertuko du eta eskaintza onartzeko edo baztertzeko proposamen arrazoitua bidaliko dio kontratazio-organoari. Inolaz ere ez da erabakiko eskaintza bat onartzea Kontratazio Zentralak onarpen-proposamena arrazoitu ezean.

Baldin eta kontratazio-organoak, kontuan hartuta lizitatzailearen justifikazioa eta gorago aipaturiko txostenak, uste badu ordura arte jasotako informazioak ez duela behar bezala azaltzen lizitatzaileak proposaturiko prezioen edo kostuen maila baxua, eta, beraz, eskaintza ezin dela bete balio baxuegiak direla eta, sailkapenetik kanpo utziko du eta eskaintzarik onenaren aldeko adjudikazioa erabakiko du. Oro har, ustez baxuegiak diren eskaintzak baztertuko dira, baldin eta ikuspegi tekniko, ekonomiko edo juridikotik desegokiak diren hipotesi edo jokabideetan oinarrituta badaude.

7.- ESPARRU-AKORDIOAREN ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA FORMALIZAZIOAREN PUBLIKOTASUNA.

7.1.- Esparru-akordioa ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzeari eta adjudikazio-prozeduran atzera egiteari dagokienez, SPKLren 152. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Interes publikoaren arrazoiengatik bakarrik erabaki ahal izango da kontratua ez adjudikatzea edo ez egitea, eta arrazoiok behar bezala justifikatu behar dira espedientean. Prozeduran atzera egiteko, esparru-akordioa prestatu edo adjudikazio-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar da, eta atzera egiteko arrazoia espedientean justifikatu beharko da.

Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik hartu ahal izango du erabakia esparru-akordioa ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko. Halakoetan konpentsazioa emango zaie lizitatzaileei egin dituzten gastuengatik, iragarkian edo baldintzen agirian ezarritako moduan edo, bestela, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideen arabera, administrazio-prozedura erkidearen izapideak erabiliz.

Kasu batean zein bestean, administrazio honek zehaztuko du lizitazioak lizitatzaileari eragin dizkion gastuen konpentsazioa. Aurretik entzunaldia emango zaie lizitatzaileei eta haiek gastuak frogatu beharko dituzte. Nolanahi ere, konpentsazioa ezin da izan HIRUREHUN (300,00) EUROtik gorakoa.

7.2.- Esparru-akordioaren adjudikazioa.-

7.2.1.- Eskaintzak sailkatzea.-

Enpresa adjudikazioduna hautatzeko aplikatu behar diren irizpideak haztatu ondoren Kontratazio Zentralak adjudikazio-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Adjudikazio-proposamenak ez dio inolako eskubiderik sortuko proposaturiko enpresa lizitatzaileari Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, ez eta atxikitako erakundeen aurrean ere. Nolanahi ere, kontratazio-organoak ez badu esparru-akordioa proposamenaren arabera adjudikatzen, arrazoitu egin beharko du erabakia. (157.6)

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratazio-organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak, kanpoan utzirik SPKLn xedatutakoaren arabera baxuegitzat jo direnak. Sailkapen hori baldintza-agiri honetan adierazten diren adjudikazio-irizpideen arabera egingo du, eta horretarako egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Kontuan hartzeko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintza ekonomikorik onena preziorik baxuena duena izango da.

7.2.2.- Berdinketak haustea.-

Adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren eskaintza biren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, SPKLren 147. artikuluan berdinketak hausteko ezarritako adjudikazio-irizpide bereziak aplikatuko dira.

Berdinketak hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, ez aurretik. Nolanahi ere, baldintzak betetzen ote diren zehazteko unea proposamenak aurkezteko epealdia amaitzen denekoa izango da.

7.2.3.- Esparru-akordioa adjudikatu gabe uztea.- Ezingo da utzi adjudikatu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintzen agirian ezartzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

7.2.4.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresari eskatuko zaion eta hark aurkeztu beharko duen dokumentazioa. Dokumentazioa aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa izango da errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

7.2.4.1. Kontratatzeko betekizunei buruzko frogagiriak:

Enpresen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekua ezarrita ez edukitzeari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko epealdiko azken egunean bete beharko dira, eta beren horretan mantendu behar dira esparru-akordioaren kontratu eratorriak burutzen direnean.

1.- Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak, jarraian adieraziko diren kasuen arabera:

a) Pertsona fisikoa: proposamena egiten duen pertsonaren NANa edo horren ordezko dokumentu fede-emailea.

b) Pertsona juridikoa: eraketaren eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza; agiri horietan jasota geratu behar da pertsona juridiko horren jarduna zer arauren arabera erregulatuko den, eta agiri horiek guztiak behar bezala erregistratu behar dira pertsona juridiko bakoitzari dagokion erregistro publikoan.

c) Aldi baterako enpresa-elkarteak: kide bakoitzak bere gaitasuna, izaera, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatuko ditu.

d) Espainiakoak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresak: enpresak errotuta dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria (Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 1. eranskina), zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria aurkez dezakete, aplikatzekoak diren Batasuneko xedapenen arabera. Halaber, enpresa dagoen estatuko legeriak eskatzen badu enpresak zerbitzua emateko baimen berezia behar duela edo erakunde jakin bateko kidea izan behar dela, hori betetzen duela egiaztatu beharko du.

e) Europar Batasunekoak ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak: Espainiak estatu bakoitzean daukan ordezkaritza diplomatiko Iraunkorrak edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsuletxeko bulegoak egindako txostena. Halaber, aurkezten den dokumentazioarekin batera beste agiri bat ere aurkeztu behar da, eta agiri horren bidez egiaztatu behar da, hain zuzen ere, atzerriko enpresen jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek estatu horretako Administrazioarekiko kontratazioetan parte hartzea, funtsean berdintsua den moduan. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Hitzarmena sinatu duten estatuetako enpresek ez dute elkarrekikotasunari buruzko txostena aurkeztu behar.

2.- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentuak. Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek ordezkaritza-ahalordea aurkeztu behar dute.

Era berean, ordezkaritzarako ahalorde askietsia daukan pertsonak Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu behar du, edo, bestela, agiri hori ordezkatzen duen beste dokumentu bat.

3.- Kontratuaren objektua den prestazioa egiteko gaikuntza enpresariala edo profesionala. Kasuan kasuko kontratuaren objektua den prestazioa egiteko gaikuntza enpresariala edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, baldin eta esparru-akordioa egiteko baldintza gisa legez galda badaiteke.

4.- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko dokumentazioa. Baldintza-agiri honen karatulako “S” apartatuan (KAUDIMENA EGIAZTATZEKO MODUAK) zehazten da zer dokumentazio aurkeztu behar den.

Orobat egiaztatu beharko du, frogagiri bidez, badituela benetan kontratua exekutatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak, hain zuzen ere baldintza-agiri honen karatulako “S” apartatuan (KAUDIMENA EGIAZTATZEKO MODUAK) aipatzen direnak, adjudikazioduna izateko proposaturiko lizitatzaileak aurretiaz adierazi baitu badauzkala, kontratua exekutatu ahal izateko.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuen kanpo-bitartekoak baliatuz gero (SPKLren 75. art.), kaudimena ematen duen enpresaren zuzendaritza-organoak emaniko dokumentua aurkeztu behar da (ziurtagiria), non konpromisoa hartzen duen, idatziz, kaudimen hori emateko.

Kontratuak indarrean dirauen artean adjudikaziodunak kaudimena egiaztatzeko aurkezturiko bitartekoak mantendu behar ditu. Kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuez bakarrik ordeztu daitezke, arrazoi ezin aurreikusiak direla medio, eta Administrazioak horretarako baimena emanez gero.

5.- Kalitatearen bermeari eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak bete beharra. Baldintza-agiri honen karatulako "S" apartatuan (KAUDIMENA EGIAZTATZEKO MODUAK) ezartzen bada, lizitatzaileak apartatu horretan aipatzen diren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, eta egiaztatu beharreko kaudimen-irizpide gisa erabiliko dira.

6.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak nahiz beste betebehar batzuk egunean izateari buruzko ziurtagiriak eta/edo txostenak. Indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki behar dira.

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarte horretako enpresa guztien ziurtagiriak eta erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu behar dira.

7.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kargapeko jardueraren bat eginez gero: Aribideko ekitaldiko alta-agiria edo azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena (AKPAren 4. ERANSKINA). Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, bertan baja emanda ez dagoelako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, eta zer salbuespen-kasutan dagoen adierazi. (4. ERANSKINA)

Lizitatzaileek berariaz adierazten badute ados daudela administrazio honek beren jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko datuak eskuratzeko, Kontratazio Zerbitzuko organo kudeatzaileak ziurtagiriak eskatuko dizkie behar diren ogasunei.

Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkarteko enpresa guztienak aurkeztu behar dira.

8.- Kontuan hartuta esparru-akordioaren edukia, prestazioaren ezaugarri bereziak eta esparru-akordioa kontratu eratorrien bitartez gauzatuko dela, ez da behin betiko bermerik eskatuko. Nolanahi ere, adjudikazioa egin aurretik eskatu ahal izango da kontratu eratorri bakoitzeko.

9.- Aldi baterako enpresa-elkartea formalizatzeko eskritura publikoa.Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, elkartea eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du.

10.- Laneko arriskuen prebentzioaren eranskina.

11.- Kontratu batean datu pertsonalak tratatu behar badira, adierazpen batean zehaztu beharko da non egongo diren zerbitzariak eta nondik emango diren kontratuko zerbitzuak, administrazio-klausula partikularren agiriaren 10.14.2 apartatuan xedatzen denaren arabera.

7.2.4.2.- Dokumentazioa zuzentzea.

Adjudikazioduna izateko proposatzen den lizitatzaileak dokumentazioan falta diren agiriak aurkeztu ahal izango ditu esparru-akordioa adjudikatu aurretik. Hiru (3) egun baliodun edukiko ditu horretarako. Eskatutako dokumentazioari buruzko errekerimendua modu egokian betetzen ez bada, lizitatzaileak bere eskaintza kendu egin duela ulertuko da; eta dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrenkerako hurrengo lizitatzaileari.

Adjudikazioduna izateko proposaturiko lizitatzaileak ez badu epearen barruan aurkezten errekerimenduan eskatutako dokumentazioa doloa, errua edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua ezarrita daukala adierazi ahal izango da, SPKLren 71.2 a) artikuluan ezartzen denari jarraikiz. Beste alde batetik, kontratatzeko debekuan eroriko da, SPKLren 71.1.e) artikuluan ezartzen denaren arabera, baldin eta datu faltsuak eman baditu bere gaitasunari, ordezkaritzari edo kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egitean.

7.2.4.3.- Lizitatzaileen erregistro baten ZIURTAGIRIA baliatuz egiaztatzea.

Gorago aipaturiko inguruabarretako zenbait betetzen direla egiaztatzeko agirien ordez (jarduteko gaitasuna egiaztatzeko dokumentazioa, ordezkaritza-agiriak, Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positiboak, 4. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpena eta abar) honako erregistro hauetako batek emandako ZIURTAGIRIA aurkez daiteke:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria.

b) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria.

c) Sailkapenari buruzko Batasuneko ziurtagiria.

Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzaileak ofizioz eskatuko ditu ziurtagiri horiek. Ziurtagiriok lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena beharko dute, ziurtagirian islatzen diren inguruabarretan ez dela aldaketarik egon baieztatzen duena (3. ERANSKINA).

Erregistroak emandako ziurtagirian azaltzen ez diren inguruabarrei buruzko frogagiriak erantsi beharko dira.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

7.2.5.- Esparru-akordioa adjudikatzeko epea.

Kontratazio-organoak esparru-akordioa adjudikatzeko epea bost egun baliodunekoa izango da, dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Esparru-akordioaren adjudikazioduna aukeratzeko kontuan hartuko den irizpide bakarra prezioa bada, adjudikaziorako epea hamabost egunekoa izango da gehienez proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera.

Esparru-akordioa adjudikatzeko zenbait irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi-zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, proposamenak irekitzen direnetik sei hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da.

Goiko apartatuetan aipatzen diren epeak hamabost egun baliodun luzatuko dira beharrezkoa denean SPKLren 149. artikuluaren 4. apartatuan aipatzen diren izapideak egitea (eskaintza baxuegiei buruzkoak).

Adjudikazioa ez bada egiten adierazitako epe horien barruan, enpresa lizitatzaileek beren proposamena kentzeko eskubidea edukiko dute.

7.2. 6.- Enpresa lizitatzaileei esparru-akordioaren adjudikazioa jakinaraztea eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu baten bidez erabakiko du adjudikazioa, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko die. Horretarako, kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun igaro baino lehen.

Jakinarazpenean adieraziko da zer epetan formalizatu behar den, SPKLren 153. 3 artikuluaren arabera.

Jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo da. https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera

Aldi baterako enpresa-elkarteen eskaintzetan, elkartea eratuta ez dagoen artean egiten diren jakinarazpenak lizitazio elektronikoaren plataforman elkarteburu izendatutako enpresari bidaliko zaizkio. Aldi baterako enpresa-elkartea eratu eta kontratuaren adjudikazioa jakinarazi ondoren jakinarazpenak aldi baterako enpresa-elkarteari bidaliko zaizkio.

Jakinarazpen eta komunikazioak egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteko, interesduna edo haren ordezkaria sartuko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako diseinatutako apartatuan eskuragarri jarritako jakinarazpen edo komunikazioaren edukira; horretarako, identifikatu edo sinatzeko onartutako sistema elektronikoren bat erabili beharko du aurretik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez eginiko jakinarazpen elektronikoa interesduna edo beraren ordezkaria jakinarazpenaren edukira sartzen denean joko da egindakotzat lege-ondorio guztietarako.

Jakinarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri jarri dela egiaztaturik, jasotzailea ez bada sartzen jakinarazpenaren edukira 10 egun naturaletan, jakinarazpena ezetsi dela ulertuko da, izapidea egintzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta legez edo foru arau baten bidez beste eperik ezartzen bada.

7.2.7.- esparru-akordioa formalizatzea.

Esparru-akordioa administrazio-agiri batean formalizatuko da. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak. Eskatuz gero, bere kontura izango dira eskritura publikoa egiteak eragiten dituen gastuak.

Esparru-akordioa formalizatzen denean, aukeratutako enpresa Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralaren hornitzailea izango da.

Esparru-akordioa formalizatzeko epea:

a) Esparru-akordioaren aurka kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal bada SPKLren 44. artikuluaren arabera, ezin izango da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena enpresa lizitatzaileei igortzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.

   Aurreko paragrafoan zehazten den epealdian kontratuaren formalizazioa eten dezakeen errekurtsorik aurkezten ez bada, kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio adjudikaziodunari kontratua formalizatu dezan errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun natural igaro baino lehen. Berdin jokatuko du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

b) Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzaileek adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen dutenetik hamabost egun baliodun igaro aurretik formalizatu beharko da kontratua.

Esparru-akordioa formalizatu arte ezin izango da kontratu eratorririk adjudikatu, espedientea presaka izapidetzen denean izan ezik.

Adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik ez bada formalizatzen kontratua aipaturiko epealdiaren barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe) zigor gisa; zenbateko hori,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lehenik, behin betiko bermearen kontra kobratuko da (bermea eratu bada), 71. artikuluaren 2. apartatuaren b) letran ezartzen dena gorabehera.

Aldiz, esparru-akordioa ez formalizatzeko arrazoiak Bizkaiko Foru Aldundiari egotzi behar bazaizkio, berandutzeak eragindako kalte-galeren ordaina emango zaio kontratistari.

7.2.8.- Esparru-akordioaren formalizazioaren publikotasuna.-Kontratuak esparru-akordio batean oinarrituta adjudikatzeko aukerak honako baldintza hau edukiko du: esparru-akordioa formalizatzen denetik hogeita hamar egun igaro baino lehen formalizazioari buruzko iragarkia bidali behar da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera, baldin eta arauketa harmonizatuko kontratua bada, eta kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratu behar da.

8.- ESPARRU-AKORDIOAREN EXEKUZIOA.

8.1.- Esparru-akordioa betetzearen ondoriozko betebeharrak.

- Esparru-akordioaren adjudikazioak ez dio sortuko zerbitzua egiteko aurretiko betebeharrik Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari, ez eta atxikitako erakundeei ere.

- Aukeratutako enpresak zerbitzuak egin beharko ditu administrazio-klausula partikularren agiriaren eta preskripzio teknikoen agiriaren baldintzen arabera, agiri horiek artezten baitute kontratazioa. - Aukeratutako enpresak esparru-akordioa oso-osorik exekutatzeko behar diren administrazio-baimen eta bestelako baimen guztiak kudeatu beharko ditu.

- Aukeratutako enpresak esparru-akordioaren iraunaldia bete beharko du, baldintza-agiri honen karatulako M.1 apartatuan ezarrita dagoenaren arabera.

- Aukeratutako enpresak isilpean gorde beharko ditu jendaurrekoak edo nabariak ez izanik esparru-akordioaren eta kontratu eratorrien objektuarekin lotuta dauden datuak eta aurrekariak, hain zuzen ere esparru-akordioaren edota kontratu eratorrien ondorioz ezagutzen dituenak, honako kasu honetan izan ezik: kontratuaren izaera eta inguruabarrak kontuan hartuta, kontratazio-organoak hala jokatzea komenigarria ez dela uste duenean.

- Aldundiaren irudi korporatiboa erabiltzeari dagokionez, hornitzaileak hura erabiltzeko baimena eskatu beharko du, eta ezin izango du sartu bere merkataritza-informazioan Bizkaiko Foru Aldundiarekin zuzenean identifikatzen duen logorik, Aldundiaren organo eskudunak komunikazio zehatz baterako berariazko baimena eman ezean.

Esparru-akordioaren zein haren kontratu eratorrien ondoriozko betebeharrak akatsak direla eta betetzen ez badira, baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera, zigorrak ezarri ahal izango dira baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) xedatutakoaren arabera.

8.2.- Esparru-akordioa aldatzea eta eguneratzea.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira esparru-akordioak, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren kasuetan eta bertan ezartzen den bezala.

9.- ESPARRU-AKORDIOA AZKENTZEA.

A) Esparru-akordioa betetzea.

Esparru-akordioaren iraunaldian desadostasunen bat sortzen bada hura betetzeko moduari buruz, beren beregi agerraraziko da eta enpresari jarraibide zehatzak emango zaizkio antzemandako akatsak zuzendu ditzan eta betebeharrak bete ditzan horretarako ezartzen den epealdian.

B) Esparru-akordioa suntsiaraztea.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 294. artikuluetan ezartzen dira.

Suntsiarazteko arrazoiak eta horien ondorioak aplikatzeari dagokionez, SPKLren 212., 213. eta 295. artikuluetan ezarritakoa beteko da. Halaber, esparru-akordioa suntsiarazteko arrazoi espezifikoak izango dira:

- Administrazioarekin kontratatzeko baldintzak betetzeari uztea.

- Esparru-akordioaren objektu diren prestazioak behin eta berriz ez betetzea.

- Bizkaiko Foru Kontratazio Zentralaren zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak oztopatzea.

- Kontratazio-prozeduran aurkeztutako agiri edo aitorpenetako bat egiazkoa ez izatea.

- Zerbitzua ez ematea, administrazio-klausulen agiriko edota preskripzio teknikoen agiriko klausulen arabera.

- Atxikitako erakundeekin sinatu beharreko kontratua hiru aldiz ez formalizatzea urtebeteko aldian hautatutako enpresari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik.

Esparru-akordioa suntsiarazten bada, hala ere horrek ez die eragingo dagoeneko formalizatuta dauden kontratu eratorrien indarraldiari eta burutzapenari; beraz, kontratu eratorri horiek indarrean iraungo dute itunduta dauden moduan, harik eta indarraldia indarreko araudiarekin bat etorriz amaitu arte.

10. ESPARRU-AKORDIOAREN KONTRATU ERATORRIAK

10.1. Kontratu eratorriaren kontratazio-organoa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratazio-organoa esparru-akordioari atxikitako erakundearena izango da, indarreko araudian ezartzen denaren arabera.

Esparru-akordioari atxikitako erakunde bakoitzeko organo eskudunak edukiko du kontratu eratorria baimentzeko eta adjudikatzeko eskumena, bai eta gastua baimentzeko eta xedatzeko eta ordainketa baimentzeko ere.

10.2. Kontratu eratorrien arduraduna.- Esparru-akordioari atxikitako erakunde bakoitzeko kontratazio-organoak kontratu eratorri bakoitza exekutatzeko arduradun bat izendatu beharko du.

10.3. Kontratu eratorriak adjudikatzeko prozedura.

Esparru-akordioaren kontratu eratorriak bertan ezartzen denaren arabera adjudikatu beharko dira. Kontratazio-organoek idatziz egin ahalko diote kontsulta enpresaburuari. Beharrezkoa bada, eskaintza osatzeko eskatu ahalko diote.

Ez da beharrezkoa izango kontratu eratorriak formalizatzea, kontratuok adjudikatzean burutzen baitira.

10.4. Kontratu eratorriaren baldintzak esparru-akordioaren baldintzen arabera egokitzea.

Kontratistak ezin izango ditu aplikatu esparru-akordioan ezarritakoak baino handiagoak diren prezioak, baldintzak ez prestazioak. Salbuespena: kontratua adjudikaziorako negoziazioaren unean uneko eskaintzaren bitartez adjudikatzen bada, agiri honen klausulen ondoriozko eguneratzeak eta baldintzak zehazteko prozeduraren ondoriozkoak aplikatuko dira.

10.5. Kontratu eratorrien iraunaldia.

Kontratu eratorrien iraunaldia baldintza-agiri honen karatulako honako apartatu hauetan ezarritakoaren araberakoa izango da: M.2 (KONTRATU ERATORRIAK GAUZATZEKO/EMATEKO EPEA) eta N.2 (KONTRATU ERATORRIAK LUZATZEKO AUKERA).

Kontratazio-organoak erabakiko du kontratu eratorria luzatzea. Erabakiz gero, luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, baina ezinbestekoa izango da aurreabisua egitea kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago, baldintza-agiri honen karatulan aldi luzeagoa ezarri ezean.

Inolaz ere ez da luzapenik egongo alderdi bien isilbidezko adostasunaren bitartez.

Kontratistarentzat luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratuan SPKLren 198.6 artikuluan ezartzen den suntsiarazpen-arrazoia gertatzen denean, administrazioa sei hilabete baino gehiago atzeratu delako prezioa ordaintzen.

Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, jarraian ematekoak diren zerbitzu-kontratuetan, kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak badaudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berriaren exekuzioa hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana. Halakoetan, kontuan hartuta luzapena ezin aurreikusizkoa dela eta goian ezarritakoa ez dela aplikatzen kontratazio-organoak hala nahi duelako, luzapena ez da kontuan hartuko balio zenbatetsia zehazteko eta ez da aplikatzekoa izango goian aipaturiko aurreabisuaren betebeharra.

10.6. Behin betiko bermea.

10.6.1.- Bermea eskatzea eta haren zenbatekoa.

Baldintza-agiri honen karatulako “J.2” apartatuan (KONTRATU ERATORRIEN BEHIN BETIKO BERMEA) ezartzen da behin betiko bermea eskatuko den ala ez, bai eta haren zenbatekoa ere.

10.6.2.- Bermea egiaztatzeko epea.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak hamar (10) egun baliodunetan egiaztatu beharko du bermea, behin betiko bermea aurkezteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

10.6.3.- Bermea jartzeko moduak.

a) Eskudirutan edo zor publikoko baloreetan.

b) Abal bidez; abala Espainian jarduteko baimenduta dagoen banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-establezimendu edo elkarrekiko berme sozietate batek eman behar du.

c) Kauzio-aseguru baten bidez; aseguru hori arlo horretan jarduteko gaituta dagoen aseguru-erakunde batekin egin behar da.

d) Prezioan atxikipena eginez; atxikipen hori lehenengo fakturaren zenbatekoaren gainean egingo da, edo, fakturak ez badu behar besteko zenbatekorik, hurrengoen zenbatekoen gainean. Horretarako, beharrezkoa izango da eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak beren beregi eskatzea prezioan atxikipena egiteko; hori egiteko kontratu eratorriaren izapidetzean zehar emango den dokumentua erabiliko du.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurreko b) eta c) kasuetan jarraian adieraziko diren agiri hauek ere aurkeztu behar dira (aurretik aurkeztu ez badira):

1.- Enpresa abal-emailearen edo aseguratzailearen izenean jarduten duen pertsonaren NANa.

2.- Ahalorde-eskritura; bertan abal edo kauzio-asegurua izenpetzen dutenek dituzten ahalmenak agertu behar dira.

Hirugarrenek jarritako bermeen araubidea SPKLren 112. artikuluan ezartzen da.

10.6.4.- Bermeak estali behar dituen erantzukizunak.

Honako kontzeptu hauen erantzukizunak baino ez ditu estaliko behin betiko bermeak:

a) Kontratua exekutatzean egiten dituen akatsengatik kontratistari ezartzen zaizkion zigorrak.

b) Batetik, kontratuko prestazioak zuzen exekutatzea; bestetik, kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeak Administrazioari eragiten dizkion gastuak; azkenik, kontratua exekutatzeak edo ez-betetzeak Administrazioari eragiten dizkion kalte-galerak, kontratua suntsiarazten ez bada.

c) Kontratua suntsiarazten denean dekretatu daitekeen konfiskatzea, kontratuan edo SPKLn ezarrita dagoenaren arabera.

d) Emandako ondasunetan akatsik edo okerrik ez egotea kontratuan ezarrita dagoen berme-aldian.

10.6.5.- Bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea.

Behin betiko bermea birjartzeko eta birdoitzeko araubidea SPKLren 109. artikuluan ezartzen da.

10.6.6.- Itzulketa eta ezereztea.

Bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta baldintza-agiri honen karatulan ezartzen den berme-aldia edo, bestela, kontratuan bertan ezartzen dena amaitu eta kontratua behar bezala bete arte, edo kontratua suntsiarazitzat jo arte, kontratistaren errurik gabe. Izapidetzea SPKLren 111. artikuluan ezartzen diren arauen arabera egingo da.

Kontratuaren objektuaren zati bat soilik jasotzen bada, kontratistak bermearen zati proportzionala itzultzeko edo ezerezteko baino ezin izango du eskatu, baldin eta hori berariaz baimentzen bada baldintza-agiri honen karatulan.

Kontratu bat lagatzen bada, lagatzaileak jarritako bermea ez da itzuliko ez ezereztuko harik eta lagapen-hartzailearen bermea behar bezala eratu arte.

10.7. Kontratu eratorriaren prezioa:

10.7.1.- Prezio zehatza.

Kontratuak prezio zehatza edukiko du. Prezio hori benetan exekutatutako prestazioaren arabera ordainduko zaio kontratistari, itundurikoaren arabera. Ulertuko da prezioan jasota dagoela balio erantsiaren gaineko zergaren kontzeptuan ordaindu beharreko kopurua; kopuru hori, nolanahi ere, partida independente gisa adieraziko da. Oro har, prezioa eurotan adierazi beharko da; nolanahi ere, ordainketa beste kontraprestazio batzuk emanda egin ahal izango da hala ezartzen den kasuetan.

10.7.2.- Prezioa ordaintzea.

Kontratistak eginiko prestazioagatik hitzartutako prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du, kontratuan ezarritakoaren arabera.

Debekatuta dago ordainketa geroratuak egitea, honako kasu hauetan izan ezik: kontratuak ordaintzeko, finantza-errentamenduaren sistema edo erosteko aukera ematen duen errentamendu-sistema erabiltzen denean, edo SPKLk edo beste lege batek berariaz horretarako baimena ematen duenean.

Administrazioarekiko kobrantza-eskubidea daukaten kontratistek laga egin dezakete eskubide hori zuzenbidearen arabera. Kobrantza-eskubidearen lagapena administrazioarekiko eraginkorra izan dadin, ezinbesteko betekizuna da administrazioari lagapen-erabakiaren jakinarazpena helaraztea modu frogagarrian.

Prezioa ordaintzeak prezio hori kobratzeko eskubidea sortzen dio kontratistari eta, berriz, hura ordaintzeko betebeharra Administrazioari. Horrenbestez:

a) Kontratistak egindako prestazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea edukiko du, SPKLren 198. artikuluan eta kontratuan ezarritakoaren arabera, itundutako prezioa aplikatuz.

Kontratistak, halaber, eskubidea edukiko du kontratua exekutatzeko prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko, eragiketok kontratuaren xedearen barnean badaude, betiere baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen den bezala. Halako ordainketak bermea jarrita ziurtatu beharko dira.

b) Administrazioak prezioa ordaindu beharko du, SPKLren 198. artikuluan eta harekin bat datozen artikuluetan ezarritakoaren arabera. Artikulu horietan, halaber, ordainketaren berandutzeari buruzko araubide juridikoa ezartzen da.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

10.7.3.- Ordaintzeko modua.

Prezioa osorik edo zatika ordain daiteke, konturako ordainketak eginez, edo, segidako traktudun kontratuetan, hitzarturiko mugaegun bakoitzean ordainketa eginez, baldintza-agiri honen karatulako "U" apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen denaren arabera.

Kontratistak faktura elektronikoak egin eta bidali ahal izango ditu ordainketa egiteko. Edozelan ere, kontratistak faktura elektronikoa erabili beharko du eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztu beharko du honako entitate hauetako bat denean:

a) Sozietate anonimoa;

b) Erantzukizun mugatuko sozietatea;

c) Espainiar nazionalitatea ez duen pertsona juridikoa edo nortasun juridiko gabeko entitatea;

d) Zerga-araudian ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez den entitate baten establezimendu iraunkorra edo sukurtsala;

e) Aldi baterako enpresa-elkartea;

f) Ekonomia-intereseko elkartzea, Europako ekonomia-intereseko elkartzea, pentsio-funtsa, arrisku-kapitaleko funtsa, inbertsio-funtsa, aktiboak erabiltzeko funtsa, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsa, hipoteka-titulazioko funtsa edo inbertsioen berme-funtsa.

Hala ere, 5.000 eurotik gorakoak ez diren fakturak eta hornitzaileek kanpoko zerbitzuei egindakoak ez dira nahitaez modu elektronikoan aurkeztu behar, ez eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztu ere, harik eta faktura elektronikoen erabilera finkatu arte eta kanpoko zerbitzuek halako fakturak jasotzeko bitartekoak eta sistema egokiak eduki arte.

Erakunde kontratatzailea Bizkaiko Foru Aldundia denean, kontratistak Bizkaiko Foru Aldundiaren faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez bidali beharko du faktura elektronikoa. Puntu hori Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian dago: http://www.bizkaia.eus.

Faktura elektronikoak sortu eta bidaltzeko, Ef4tur aplikazioa doan deskargatu ahal izango da (http://aplijava.bizkaia.eus/CGFW/?idioma=CA).

Faktura elektronikoak faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorraren bidez bidaltzen badira. Formatu egituratua eduki beharko dute eta bide elektronikoz sinatuta egon behar dute; nahitaezkoa da onartutako ziurtagiria edukitzea. Plataformak onartzen duen faktura elektronikoaren formatua FACTURAE da (3.2 eta 3.2.1 bertsioak). Formatu horren gaineko informazio gehiago hemen: www.facturae.es.

Erakunde kontratatzailea Bizkaiko Foru Aldundia denean, fakturan identifikatu beharko dira faktura jaso behar duten administrazio-organoak, hau da, baldintza-agiri honen karatulako S apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) daudenak.

Gainerako erakunde kontratatzaileei dagokienez, berriz, kontratu eratorri bakoitzean adieraziko dira fakturazio elektronikoa eta harekin lotutako datuak.

10.7.4.- Urtekoak.

Zeinahi dela ere exekutatutako kontratuaren zenbatekoa, kontratistak ez du edukiko eskubiderik urte bakoitzean izendaturiko urtekoaren zenbatekoa baino gehiago jasotzeko. Hala ere, kontratazio-organoak doitu egin ditzake onetsitako urtekoak, urteko horiek kontratua exekutatzeko erritmoari egokitzearren.

10.7.5.- Prezioak berrikustea.

Prezioak honela berrikusiko dira: baldintza-agiri honen karatulako "K" apartatuan (PREZIOAK BERRIKUSTEA) ezartzen denaren arabera; kontratu-dokumentuan ezarritakoaren arabera, edo SPKLren 103. artikuluan eta berarekin bat datorren araudian ezarritakoaren arabera.

10.8.- Kontratua aldatzea.

Interes publikoaren arrazoiak direla-eta bakarrik alda daitezke administrazio-kontratuak, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren kasuetan eta bertan arautzen denari jarraikiz.

Indarrean dagoen bitartean, honako egoera hauetako batean bakarrik alda daiteke kontratua:

a) Administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik badago, hasierako prezioaren ehuneko hogei alda daiteke gehienez, 204. artikuluan ezartzen den moduan, han zehazturiko edukiarekin eta han ezarritako modu eta baldintzekin.

Edozelan ere, aldaketaren ondorioz ezin izango da ezarri kontratuan aurreikusi gabeko aleko prezio berririk.

b) Salbuespen gisa, beharrezkoa denean administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusirik ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, baina baldin eta 205. artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

Kontratu-aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira eta SPKLren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz argitaratu beharko dira.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Prezioa zehazteko exekuzio-unitateak baliatzen direnean, ez da kontratu-aldaketatzat joko, prestazioa ondo egiten bada, diferentzia egotea benetan exekutaturiko unitate-kopuruaren eta kontratuan ezarritako kopuruaren artean. Diferentzia hori likidazioan jaso ahal izango da, baldin eta unitateok ez badute eragiten gastua kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiago handitzea.

10.9.- Kontratu eratorriaren exekuzioa.

Enpresa kontratistak arrisku eta menturan jardun beharko du kontratua exekutatzean.

Kontratua haren baldintzekin bat bete behar da, legeriak administrazio publikoen alde ezartzen dituen eskumen guztiak gorabehera.

Egiten dituen lan, prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea izango da kontratista, baita Administrazioari zein hirugarrenei kontratua exekutatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek eta ondorio okerrek sortzen dituzten ondorioen erantzulea ere.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratuaren emaitza zuzen erabiltzeko beharrezkoak diren informazio osagarria eta aholkularitza teknikoa emateko (dokumentuak eta era guztietako informazioa).

10.10.- Kontratazio-organoaren eskumenak. Kontratazio-organoak dauzka administrazio-kontratuak interpretatzeko eskumenak, baita kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratuok suntsiaraztea erabakitzeko zein azken horren ondorioak zehazteko ere.

Kontratazio-organoak hartutako erabakiek amaitu egingo dute administrazio-bidea, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

10.11.- Epea betetzea eta entregatzeko lekua.

Kontratistak finkatutako guztirako epealdiaren barruan bete beharko du kontratua; elkarren jarraian egiteko izendatutako epe partzialak ere bete beharko ditu.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela jakiteko, Administrazioak ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik.

10.12.- Exekuzio akastuna eta berandutzea.

10.12.1.- Exekuzio akastuna. Kontratuaren objektua akatsekin bete bada edo kontratua gauzatzeko konpromisoak edo SPKLren 76.2. eta 202.1. artikuluen arabera ezarri diren baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak baldintza-agiri honen 10.14.2.2 apartatuan arautzen diren zigorrak ezarri ahal izango ditu, bai eta baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZATASUN BATZUK) zehazten direnak ere.

10.12.2.- Berandutzea. Betetzean egon daitekeen berandutzea dela-eta, kasu bi daude:

a) Baldin eta kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, berandutu egin bada azken epea edo epe partzialak betetzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak kontratua suntsiarazteko nahiz zigorrak ezartzeko aukera edukiko du. Berandutze-kasu batean zein bestean (azkena/partzialak), egunero ezarriko dira zigorrak: 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko (BEZik gabe), baldin eta baldintza-agiri honen karatulan bestelako zigorrik ezarri ez bada.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik kenduko dira edo, bestela, ordainketatik kendu ezin direnean, eratutako bermetik.

b) Baldin eta berandutzea kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada eta kontratistak esaten badu hasierako exekuzio-epea luzatuz gero bere konpromisoak beteko dituela, kontratazio-organoak beste epe bat emango dio: gutxienez lehen galdutako adina denborakoa, salbu eta kontratistak berak epe laburragoa eskatzen badu. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du, zeinean zehaztuko baitu ea gertatuko atzerapena kontratistari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik gertatu den.

10.13.- Kontratua exekutatzean hirugarrenei eragindako kalte-galeren ordaina. SPKLren 196. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

10.14.- Kontratistaren betebeharrak.

10.14.1.- Lan-, gizarte- eta ingurumen-arloko betebeharrak.

Kontratuak bete egin behar ditu lan-arloan, gizarte segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta konbentzio-xedapenak.

Kontratistak, adjudikatu zaion lana betetzeko erabiliko dituen langileak direla eta, zehatz-mehatz bete behar ditu lan-arloan indarrean dagoen araudia, Gizarte Segurantzakoa, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzekoa eta lan-arriskuen prebentziokoa, eta, azken bi horiei dagokienez, gizarte-prestakuntzako araudia ere bete behar du. Halaber, kontratistak beste konpromiso bat hartu behar du: enpresa azpikontratistek —egonez gero— lan-arloan indarrean dagoen legeria beteko dutela beren langileei dagokienez. Kontratistak derrigorrean zaindu behar du bere enpresako zein azpikontratatzen dituen enpresetako langileek baldintza duinetan egiten dutela lan; haien sektoreko hitzarmena aplikatuko zaie langile horiei, batez ere langileen subrogazioari dagokionez.

10.14.2.- Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak.

Kontratua exekutatzeko baldintza berezitzat joko dira honako hauek:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1.- Araudia betetzea.- Kontratua gauzatzen duen bitartean kontratistak Europar Batasuneko zuzenbidean, nazioko zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan eta ingurumenean, gizartean eta lanean Estatua lotzen dituzten nazioarteko xedapenetan indarrean dauden ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloetako betebeharrak bete beharko ditu. Halaber, erantzukizunpeko adierazpena egingo du eskaintza egitean araudi hori aplikatu duela egiaztatzeko (horretarako eredua 2. ERANSKINean dago).

2.- Oinarrizko lan-eskubideak errespetatu beharra eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) funtsezko konbentzioak bete beharra. Kontratistak bere gain hartzen du ekoizpen kate osoan zehar oinarrizko lan-eskubideak errespetatu beharra eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete beharra; bereziki, honako hauek (eredua 2. ERANSKINean dago):

- 29 eta 105 konbentzioak, behartutako lana ezabatzeari buruzkoak.
- 87 eta 98 konbentzioak, sindikatuen eta elkarteen askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100 konbentzioa, balio bereko lana egiteagatik gizonen eta emakumeen eskulanaren artean ordainsari berdina ordaintzeari buruzkoa.
- 111 konbentzioa, enplegua eskuratzeko diskriminazioaren aurkakoa eta arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, jatorri nazional edo jatorri sozialaren ziozko lan baldintza desberdinen kontrakoa.
- 138 konbentzioa, haurren lana eta esplotazioa abolitzeari buruzkoa.
- 182 konbentzioa, haurren lan forma txarrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehala ekiteari buruzkoa.

3.- Pertsona desgaituak enplegatzeko legezko betebeharra.- Kontratuak irauten duen bitartean kontratistak plantillan dauzkan langileen % 2 gutxienez desgaitasuna duten langileak izan beharko dira, enpresan 50 langile edo gehiago badaude, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluarekin bat eginez, edo, bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak, desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kuota aparteko kasuetan betetzeari buruzkoak, ezartzen dituen neurriak ezarri beharko ditu. Konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharra betetzen duela, arduradunak eskatuz gero, kontratuaren iraunaldiko edozein unetan edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen (2. ERANSKINA).

4.- Lanean sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako deliturik eta bestelako jokabide batzuk ez gertatzeko prebentzioa.-Sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak 12. artikuluan ezartzen duena betetzeko, kontratistak edo azpikontratistak honako betebehar hau hartu beharko du bere gain kontratuaren iraunaldian: lanean (eremu digitala barne) sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako deliturik eta bestelako sexu-jokabiderik (batez ere sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik) ez gertatzeko moduko lan-giroa sustatuko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoak, 48. artikuluan ezartzen duenaren arabera, eta prozedura bereziak ezarriko ditu halakorik ez gertatzeko eta halako jokabideak (eremu digitalekoak barne) jasaten dituztenek salaketak edota erreklamazioak aurkezteko aldera (2. ERANSKINA).

Halaber, enpresa edota entitate kontratistak ondokoak jakinaraziko dizkie kontratua exekutatzeko atxikita egon eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat edo haren instalazioetan lan egiten duten langileei: lanean sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloa, eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen adierazpenari eta orientazioei buruzko akordioa. Azken hau foru-webgunearen Kontratazioa atalean dago: https://www.bizkaia.eus/eu/web/contratacion-publica/informazio-orokorra.

Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta, eta horrekin batera ezarri dituen prebentzio-neurrien frogagiriak eta (egonez gero) aurkeztutako salaketei edota erreklamazioei buruzko txostena ere bai.

Halaber, pertsona edo entitate kontratistak agiri bidez frogatu beharko du kontratuari atxikitako langileei honako hauek jakinarazi zaizkiela: Lan-esparruan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuk prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa eta Bizkaiko Foru Aldundiak Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen eta orientazioen adierazpenari buruz hartutako.

5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko balioak sustatzea: hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabiltzea.- Kontratuaren exekuzioan sortzen diren agiri, publizitate, irudi eta material guztietan enpresa edo entitate adjudikaziodunak (bai eta azpikontratistak ere, egonez gero) hizkuntza

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabili beharko ditu. Gainera, emakumeen kontrako bereizkeria eta estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu beharko ditu eta berdintasunaren aldeko irudiak, presentzia orekatua, aniztasuna, ardurakidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatu beharko ditu.

Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta, eta horrekin batera honako helburu hauek lortzeko protokoloa ere bai: hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabiltzea eta emakumeen kontrako bereizkeria eta estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestea eta berdintasunaren aldeko irudiak, presentzia orekatua, aniztasuna, ardurakidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzea .

6.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko printzipio orokorrak betetzea.-Pertsona edo entitate kontratistak zein azpikontratistak honako printzipio hauek bete beharko dituzte kontratuaren iraunaldi osoan: tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersekzionalaren integrazioa; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; sexu- eta/edo genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak askatasunez baliatu ahal izatea, eskubide horiek egikaritzean pertsonek askatasunez erabaki dezaketela bermatuz; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; koordinazioa, lankidetza eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea, eta hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea (2. ERANSKINA).

Kontratua exekutatzen den bitartean enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, lana eskuratzeko aukeretan, langileen sailkapenean, barne igoeran, lanean irautean, prestakuntzan, kontratua azkentzeko baldintzetan, ordainsarietan, lanaren kalitatean eta egonkortasunean, eta lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta.

7.- Laneko arriskuen prebentziorako ekintzak eta laneko osasunerako ekintzak genero-ikuspegiarekin diseinatzea eta gauzatzea. - Kontratistak laneko arriskuen prebentziorako ekintzak eta laneko osasunerako ekintzak genero-ikuspegiarekin diseinatu eta gauzatu beharko ditu, sexuen arteko desberdintasunak aintzat edukita, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak 5.4, 26.2 eta 26.4 artikuluetan ezartzen duenaren arabera.
Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta, eta horrekin batera ezarritako neurriei buruzko memoria ere bai.

8.- Bi sexuetako langileek soldata bera kobratzea.-Pertsona edo entitate kontratistak zein azpikontratistak kontratuari atxikitako bi sexuetako langileek soldata bera kobratzea bermatu behar du, gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-diskriminaziorik ez egoteko kontratuaren exekuzioan balio bereko lana egiten dutenean.

Bi lan balio berekoak dira benetan batean eta bestean agindutako eginkizunak edo zereginak, eginkizun horiek betetzeko eskatzen diren hezkuntza, lanbide eta prestakuntza arloetako baldintzak, eginkizunekin hertsiki lotutako faktoreak eta jarduera horiek gauzatzen diren lan-inguruabarrak berak direnean.

Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta, eta horrekin batera kontratuari atxikitako langileen zerrenda pseudonimizatua ere bai (datuak: sexua, kargua/lanbide-kategoria; soldaten batez besteko zenbatekoen erregistroa).

9.- Kontratuaren objektua den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa. Lizitatzaileek adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren objektuan jarduten duten langileei adjudikazioduna izanez gero. Horrez gainera, kontratua adjudikatutakoan kontratuaren objektuan jarduten duten langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute (2. ERANSKINA).

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren objektua den jardueran langileei aplikatuko dien hitzarmen kolektiboa zehaztu ostean, informazioa adjudikaziodunaren ebazpenean sartuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratu ere bai. Ildo horretan, eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileek borondatez onartzen dutela gardentasun instituzionala ematea lizitazio, adjudikazio eta kontratua amaitu arteko exekuzio prozesuen ondoriozko datu guztiei.

10.- Hitzarmenean ezarritako ordainsaria ordaindu beharra.- Kontratistak kontratua gauzatu bitartean hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako soldata ordaindu beharko du, langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera; soldata inolaz ere ezin da izan hori baino gutxiago (2. ERANSKINA).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

11.- Subrogatzeko betebeharra.- Lege-arau baten, hitzarmen kolektibo baten edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio baten ondorioz, adjudikazioduna zenbait lan-harremanetan enplegatzaile gisa subrogatu behar bada, honako klausula hauek aplikatuko dira, Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko:

a) Ohartarazten da kontratazioak berekin dakarrela langile guztien lan-kontratuen subrogazioa —behar denean, betebeharra ezartzen duen arauan jasotako gutxieneko antzinatasunarekin—, langile horiek beste kontrata batekoak izan arren kontratuaren xede den jarduera egiten ari baldin badira; horren ondorioz, enpresaburu berriari subrogatu egingo zaizkio aurrekoak zituen laneko eta Gizarte Segurantzako eskubideak eta betebeharrak.

b) Adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatzeko neurriaren lan-kostuak ebaluatu ahal izateko, kontratu honen subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzei buruz behar den informazioa dagokion eranskinean adierazitakoa da.

Adjudikatuko den kontratuaren objektua den prestazioa ematen ari den eta ukitutako langileen enplegatzaile den enpresak emandako informazioarekin osatu da aipatutako informazioa.

Enpresa adjudikaziodunak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zati bat, kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, administrazio-klausula partikularren agirien eta kontratuaren baldintzen arabera, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Subrogatzeko betebeharra dagoen kasuetan, adjudikaziodunak, zerbitzuak ematen hasi aurretik, zerbitzu horietara bideratutako pertsonen zerrenda aurkeztuko du, bere eskaintzan jasotako lanpostuen zerrendaren arabera, kontratuaren arduradunak, edozein unetan planifikatutako lanak egiten dituzten pertsonak identifika ditzan. Era berean, enpresa kontratistak ezin izango ditu bere eskaintzan ezarritako langileak ordezkatu, ezta kontratazio berriak egin ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren berariazko baimenik gabe.

d) Behar denean, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan ezartzen dena (2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaz onetsia) aplikatzea gorabehera, kontratista beharturik egongo da subrogazioak ukituriko langileei ordaindu gabe geraturiko soldatengatik erantzutera, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioengatik ere, baita kontratua suntsiarazten bada eta langileak kontratista berriak subrogatzen baditu ere. Edozelan ere, betebehar hori ez zaio inoiz kontratista berriari egokituko. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari aipatutako soldatak ordainduko direla bermatzeko zor zaizkion zenbatekoak atxikiko dizkio, eta behin betiko bermea ez du itzuliko, horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

12.- Exekutatzeko baldintza bereziak hizkuntza-arloan. Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio-organoek sinatzen dituzten kontratuak hizkuntza ofizial bien araubidearen mendean daude, honako arauetan ezartzen denarekin bat: Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta arlo horretan indarrean dauden araudi autonomikoa eta foru-araudia.

13.- Datu pertsonalak isilpean gorde eta babestu beharra.-*Sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 122 . artikulua eta hogeita bosgarren xedapen gehigarria* betetzeko, datu pertsonalak tratatu beharra eragiten duten esparru-akordioa eta kontratu eratorriak adjudikatzen direnetik haietan esku hartzen duten pertsonek honako rol hauek edukiko dituzte:

- *Kontratista adjudikazioduna tratamendu-eragilea* izango da, eta datu pertsonalak eskuratu ahal izango ditu eta/edo haien tratamendua egin.
- *Esparru-akordio honi atxikitzen zaizkion erakundeak tratamenduaren arduraduna:k* izango dira:
  - Bizkaiko Foru Aldundian: esparru-akordioa sustatzen duen zerbitzua atxikita dagoen zuzendaritza nagusia eta Kontratazio Zerbitzua atxikita dagoen zuzendaritza nagusia, bataren eta bestearen ardurapeko datu pertsonalen tratamenduen arabera.
  - Foru erakundeetan: zuzendaritza kudeatzaileak.
  - Esparru-akordioari atxikitako gainerako toki-erakundeetan: haiek izendatzen dituzten pertsonak.

Hori guztia hauekin bat dator: *Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio askea dela eta, pertsona fisikoen babesari buruzkoak* (aurrerantzean, DBAO), 28. artikulua; *abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa* (aurrerantzean, DPBEDBLO), 33. artikulua. Datuak babesteko araudiaren (DBAO eta DPBEDBLO) mende daudela adierazten duen adierazpena bi alderdientzat: araudi hori kontratu-espedienteari eta etorkizuneko kontratuari aplikatu beharreko araubide juridikoa da, eta nahitaezkoa da *kontratistak* eta *atxikitako erakundeek* betetzea; bi alderdiek errespetatu eta bete behar dituzte

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

datuak babesteko araudi honetan xedatzen diren betebeharrak eta hizpaketak. Halaber, bi alderdiek nahitaez bete behar dituzte klausula honetan eta gainerako baldintza-agirietan datuen babesari buruz ezarritako betebehar eta hizpaketa guztiak. Datuen babesaren araudiaren mende daudelako adierazpena kontratua exekutatzeko baldintza berezia eta funtsezko betebeharra da bi alderdientzat, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017* Legearen 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.

DBEOren 28.3 artikuluan xedatzen dena betetzen duen dokumentazioa honako hau da:

1. Klausula hau eta bertan ezartzen diren betebeharrak.

2. PTAko "Datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskina".

3. Tratamenduaren arduradunaren kontratua, tratamendu-eragilearen eta kontratistaren artean formalizatu behar dena; horren barruan dago "Datu pertsonalen tratamenduari buruzko eranskina".

Araudian ezartzen denarekin bat, halako datuak eskuratzea ez da datu-komunikaziotzat joko, eta *kontratistak*, tratamendu-eragilea den aldetik, akordioari atxikitako erakundeen aginduak bete beharko ditu, bai eta honako neurri hauek ere:

Datu pertsonalen tratamendua:

Esparru-akordioari atxikitako erakundeek *tratamenduaren arduradunak* izateak dakartzan erantzukizunak eta betebeharrak dauzkate eta kontratua formalizatuko duen pertsonak, berriz, *tratamendu-eragilea* izateak sortzen dituen erantzukizunak eta betebeharrak.

1. Tratamenduaren arduradunak honako eginkizun hauek dauzka:

a) Baimena ematea *"Datu pertsonalen tratamendua" (LAP edota tratamendua enkargatzeko kontratua)* eranskinean datuak tratatzeko zehazten diren jarduerak egiteko (PTA).

b) Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretik zaintzea, tratamenduan zehar kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.

c) Araudiari jarraikiz, datuak tratatzeko eragiketa egokietan, datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d) Aurretiazko kontsulta egokiak egitea.

"Datu pertsonalen tratamendua" eranskina (LAP edota tratamendua enkargatzeko kontratua) berariazko jarraibideen agiria da. Bertan babestu beharreko datuak zehazten dira, bai eta egin beharreko datuen tratamendua eta horren helburua, eta *kontratistak* hartu beharreko neurriak ere. Baldin eta *kontratistak* datuak "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean (LAP edota tratamendua enkargatzeko kontratua) jasota ez dauden beste helburu batzuetarako erabiltzen baditu, zabaltzen baditu edo kontratuan eta/edo indarreko araudian ezarrita dauden estipulazioak urratuz erabiltzen baditu, *tratamenduaren arduraduna* izango da, eta maila pertsonalean egindako arau-hausteen erantzulea izango da.

Baldin eta esparru-akordioa eta horren kontratu eratorriak adjudikatu ondoren "Datu pertsonalen tratamendua" eranskina (PTA edota tratamendu-eragilearen kontratua) aldatu edo moldatu behar bada, *kontratistak* idazki arrazoituan azalduko du zer aldatu edo moldatu nahi duen. *Arduradunak* eskatutakoarekin ados egonez gero, "Datu pertsonalen tratamendua" eranskin eguneratua emango du, tratamenduaren nondik norakoak zehazki jasota.

2. Tratamenduaren arduradunak honako eginkizun hauek edukiko ditu:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

DBEOren 28. artikuluarekin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat eginez, *kontratistak* bermatu behar du honako betebeharrak betetzen direla ("Datu pertsonalen tratamendua" (LAP) eranskinean eta tratamendua enkargatzeko kontratuetan zehaztutakoarekin osatzen dira):

a) Klausula honetan jasotzen diren jarraibideekin bat edo esparru-akordioaren eta haren kontratu eratorrien exekuziorako aplikatzekoak diren gainerako agiriekin bat eta, behar denean, *arduradunek* idatziz emandako jarraibideekin bat tratatzea datu pertsonalak. *Kontratistak* uste badu xedapen bat datu pertsonalen babesari buruzko araubidearen kontrakoa izan daitekeela, *arduradunei* jakinaraziko die 10 egun balioduneko epealdian.

b) Datu pertsonalen tratamenduaren helburua jakinaraztea, eta datu pertsonalak ez erabiltzea jakinarazitako helburua eta kontratuaren objektuaren exekuzioa ez den beste baterako. Betebehar hori funtsezkoa da *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen* 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.

c) Datu pertsonalak tratatzea DBEOren 32. artikuluak ezarritako segurtasun-irizpideen eta bertako edukiaren arabera, eta , behar diren neurri tekniko eta segurtasun-neurri eta antolaketa-neurri guztiak hartzea eskuratzeko modua duen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko. Zehatzago esanda, neurri horiek guztiek bat etorri behar dute informazio-sistemen kategorizazio- eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasun Eskema Nazionalari jarraikiz. DBEOren 9. edo 10. artikuluko babes bereziko datu pertsonalak tratatu behari izanez gero, kontratistak murrizketa edota berme gehiago aplikatuko ditu.

Esparru-akordioa adjudikatu ondoren *kontratistak* adierazpen batean zehaztu behar du non egongo diren zerbitzariak eta nondik emango diren haiekin lotutako zerbitzuak. Adierazpena Bizkaiko Kontratazioaren Zentral Foralera bidaliko da eta hark akordioari atxikitako erakundeei bidaliko die. *Kontratistak* adierazpen horretan (zerbitzariak non dauden eta lotutako zerbitzuak nondik egingo diren) gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko du. Bi betebehar horiek funtsezkoak dira *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen* 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako..

d) Kontratuko prestazioa egitean eskuratzen dituen datu pertsonalen inguruko konfidentzialtasuna zeharo ziurtatzea, bai eta tratamenduaren ondorioz eskuratzen dituen datuena ere, euskarria zeinahi delarik ere.

Betebehar hori lotzen zaio *kontratistaren* kargura tratamenduaren edozein alditan parte hartzen duen pertsona orori eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko horrek prestakuntza eskaini behar die bere menpeko pertsonei sekretua gorde beharreko betebeharrari buruz. Halaber, jakinarazi behar die konfidentzialtasuna gorde behar dutela jarduera amaitutakoan edo jarduera horretatik banandutakoan ere.

e) Datu pertsonalak tratatzeko pertsona baimenduen zerrenda kudeatzea eta pertsona horiek guztiek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna gordetzeko eta segurtasun neurri egokiak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Ildo horretan, segurtasun neurrien berri behar bezala jakinarazi behar zaie. Aipatutako dokumentazio guztia *arduradunek* eskura eduki beharko dute une oro.

f) Datu pertsonalen arloan, datuok tratatzeko baimena duten pertsonei beharrezko prestakuntza ematea.

g) Kasuan-kasuan, datuen *tratamenduaren eragilearen* berariazko baimena eduki ezean, datu pertsonalak hirugarrenei ez komunikatzea, lagatzea ez zabaltzea, ezta datuak gordetzeko ere.

h) Behar denean, datuen babeserako ordezkaria izendatzea, baldin eta DBEOren arabera hori beharrezkoa bada, eta *arduradunei* jakinaraztea, izendapena borondatezkoa denean ere.

Behar denean, *kontratistak* bere ordezkari izendatutako pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea, datu pertsonalak babesteko.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

i) Baldintza-agiri honen objektua den kontratu-prestazioa amaitu ondoren, konpromisoa hartzen du honako datu hauek itzultzeko edo suntsitzeko, kasuan kasukoa "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean ezartzen denaren arabera:

- eskuratu dituen datu pertsonalak
- *kontratistak* tratamendua dela-eta sortutako datu pertsonalak
- datuak dauden euskarriak eta dokumentuak, kopiarik gorde gabe

Salbuespena: legez edo Batasunaren zuzenbideko arau baten arabera gorde ahal badira edo gorde behar badira, ez dira ezabatuko. *Kontratistak*, hala ere, datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sortu daitezkeen aldian. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar besteko gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

j) "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean (PTA edota tratamendua enkargatzeko kontratuak) zehazten diren tratamendu-jarduerak egitea .

l) DBLOren 33. artikuluarekin bat eginez, eskumenak *arduradunei* berehala jakinaraztea, eta gehienez ere 72 orduko aldian, bere kargura dauden datuen segurtasunean gertatzen diren urraketak. Gainera, gorabehera dokumentatzeko edo jakinarazteko garrantzitsua den informazio guztia edo informazio tratamendu edo kudeaketa sisteman gertatu ahal izen diren akatsak edo gertatu daitezkeenak ere jakinaraziko dira, datu pertsonalen segurtasuna, integritatea edo eskuragarritasuna arriskuan baldin badaude. Horrez gain, jakinarazi egin beharko dira baita ere kontratua egikaritzean hirugarrenei datuak edo informazioak ezagutarazteagatik gertatzen diren konfidentzialtasun urratzeak. Horren inguruko informazio zehatza berehala jakinaraziko da; halaber, adieraziko da zeintzuk diren konfidentzialtasuna galdu duten interesdunak.

m) Pertsona fisiko batek datuak babesteari buruzko eskubideren bat (datuetan sartzea, datuak zuzentzea, ezabatzea eta aurkaratzea, tratamendua mugatzea, banako erabaki automatizatuen menpean ez dagoenean, edo indarrean dagoen legeriak aitortutako besteren bat) erabiltzen badu *kontratistaren* aurrean, horrek horren berri eman beharko die *arduradunei* ahalik eta lasterren. Jakinarazpena berehalakoan egin behar da eta inolaz ere ez datuak babesteko eskubidea erabili den egunaren hurrengo laneguna baino beranduago. Gainera, behar den kasuetan, horrekin batera arduradunaren esku dagoen eskaera ebazteko dokumentazioa edo informazio esanguratsua ere bidaliko da, eskubidea erabiltzen duenaren identifikazio sinesgarri eta guzti. *Arduradunei* ahal duen guztian lagunduko die eskubideak erabiltzeko eskaerak betetzen eta erantzuna ematen.

n) Arduradunei laguntzea segurtasun-neurrien inguruko betebeharrak betetzen, segurtasun-neurriak urratzeko egiten diren saiakeren eta gertatzen diren arrakalen berri ematea agintari eskudunei edo pertsona interesdunei, eta inpaktu-ebaluazioak egiten laguntzea.

Arduradunei laguntzea kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoari) egin beharreko aurretiazko kontsultetan, behar denean.

Halaber, *arduradunen* esku jarriko du, haiek eskatuta, baldintza-agiri honetan eta gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, eta lagunduko du *arduradunek* auditoriak eta ikuskapenak egiten dituztenean.

ñ) DBEOren 30.2 artikuluak ezartzen duenari jarraikiz, idatziz (edo formatu elektronikoan) *arduradunen* kontura egindako datuen tratamenduko jardueren kategoria guztien erregistroa kudeatzea. Erregistro horretan artikuluan aipatzen diren inguruabar guztiak agertu beharko dira, gutxienez. Horrenbestez, erregistroan honako informazio hau bildu behar da:

- Kontratistaren izena eta harremanetarako datuak edo, behar denean, beste tratamendu-eragile batzuenak eta *arduradunenak*.
- Eginiko tratamenduen kategoriak.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Segurtasun-arloko neurri teknikoen eta antolaketa-neurrien azalpena, eta horien aplikazioa bidezkoa bada, alderdi hauen ingurukoak:
    - Datu pertsonalen pseudonimizazioa eta zifratzea.
    - Tratamenduko sistemen eta zerbitzuen konfidentzialtasun, integritate, eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gaitasuna.
    - Gorabehera fisiko edo teknikoak gertatzen baldin badira, datu pertsonalak azkar eskuratu eta jasotzeko gaitasuna eraberritzea.
    - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu ohikoa.

o) Datu pertsonalen babesaren inguruko araudia eta ardura aktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak edukitzea. Adibidez, auditoretzen betetze-mailaren edo emaitzen gaineko ziurtagiriak. Ziurtagiri horiek *arduradunei* helarazi beharko dizkie, eskatuz gero. Era berean, kontratuak irauten duen artean, *arduradunen* esku jarriko ditu unean-unean eskuragarri dauden informazioa, ziurtagiriak eta ikuskaritzen emaitzak.

p) Informaziorako eskubidea: Datuak biltzen dituenean, *kontratistak* egingo dituen datu-tratamenduei buruzko informazioa eman beharko du. Informazio hori zelan eta zer formatutan emango den, datuen tratamenduaren *arduradunekin* adostu beharko du datuen bilketari ekin baino lehen.

Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira ordaindu baldintza-agirietan eta gainerako kontratu-dokumentuetan ezarritakoa ez beste modu batean, ez eta osagarri moduan ere, eta baldintza-agiri honen objektua den prestazioaren iraunaldi bera edukiko dute eta, behar denean, iraunaldi bereko aldietarako luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratu-prestazioa amaitutakoan sekretua gorde beharrak indarrean iraungo du, inolako denbora-mugarik gabe, haren exekuzioan aritu diren pertsona guztientzat.

Baldintza-agiri honen objektua betetzeko ez da beharrezkoa *kontratistak arduradunen* ardurapeko beste ezein datu pertsonal eskuratzea, eta, beraz, ez dago baimenduta "Datu pertsonalen tratamendua" eranskinean (LAP edota tratamendua enkargatzeko kontratua) zehaztutakoak ez diren beste datu batzuk eskuratzeko edo tratatzeko. Kontratuaren exekuzioan gertatzen den gorabehera baten ondorioz *arduradunen* ardurapeko datu pertsonal batzuk ezustean eskuratzen badira, hasieran aurreikusita egon gabe, *kontratistak arduradunei* jakinarazi beharko die.

Azpikontratazioei lotutako tratamenduko azpiaginduak

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu nahi badu kontratuaren exekuzioa eta azpikontratistak, kontratatuz gero, datu pertsonalak eskuratu behar baditu, kontratistak hori aldez aurretik jakinaraziko die *arduradunei*, eta datu pertsonalen zer tratamendu dakarren adieraziko die, *arduradunek* erabaki dezaten, behar izanez gero, azpikontratu horri baimena eman ala ez.

Edonola ere, azpikontratazioa baimentzeko, derrigorrezkoa izango da honako baldintza hauek betetzea (horiek bete arren, *arduradunek* erabakiko dute baimena eman edo ez):

• Azpikontratistak datu pertsonalen tratamendua indarreko legeriara, baldintza-agiri honetan jasotakora eta *arduradunen* jarraibideetara egokitzea.

• *Kontratistak* eta azpikontratistak datuak tratatzeko enkargu-kontratu bat formalizatzea, baldintza-agiri honetan aurreikusitako baldintzak bezain murrizgarriak diren baldintzetan. Kontratu hori *arduradunen* esku jarriko da, errekerimendua egiten zaionean, kontratu horren existentzia eta edukia egiaztatzeko.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratistak arduradunei jakinaraziko die beste pertsona azpikontratista batzuk laneratzen edo ordezkatzen badira, eta hala, *arduradunek* bidezko baimena eman ahal izango dute. *Arduradunek* eskaerari ez erantzutea ezezkotzat jo behar da.

Kontratistak zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak hirugarrenekin azpikontratatu nahi baditu, lizitatzaileek aldez aurretik adierazi beharko dute eskaintzan haiek egitea aginduko zaien azpikontratistek zer izen edo profil duten, kaudimen profesionaleko edo teknikoko baldintzen arabera definituta. Betebehar hori funtsezkoa da *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen* 211.1 artikuluko f) letraren ondorioetarako.

SPKLren 215.4 artikuluaren arabera, azpikontratistak *kontratista* nagusiaren aurrean baino ez du betebeharrik, eta hark hartu behar du bere gain kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa arduradunen aurrean; datuen babesari dagokionez, baldintza-agirietan eta kontratuan horri buruz xedatzen dena bete behar da zorrozki, eta, gainera, SPKLren 202.1 artikuluan jasotako betebeharra bete behar da, hau da, datuak babesteko araudia, DBAO eta DPBEDBLO bete behar dira..

14.- Prekarietatea eta behin-behinekotasuna murriztea.- Enpresa lizitatzaileek kontratuaren iraunaldi osoan bermatu beharko dute hura gauzatu behar duten langile guztiek mugagabeko kontratua daukatela. Nolanahi ere, lan-arloko legerian arautzen diren salbuespenak aplikatuko dira (2. ERANSKINA).

Kontratua formalizatzen denetik hilabete igaro aurretik enpresa edo entitate adjudikaziodunak kontratuari atxikitako pertsonen datuak emango ditu; horretarako, Gizarte Segurantzako alten eta lan-kontratuen kopiak aurkeztuko ditu.

15.- Azpikontratazioa.

Behin azpikontratazioa SPKLren 215. artikuluan ezarritako arauen arabera izapidetuta, kontratistak honako dokumentazio hau bidaliko du Kontratazio Zerbitzura edo atxikitako erakundeetako bakoitzeko organo eskudunera:

a) Azpikontratista bakoitzaren identifikazioa eta adjudikazio-zenbatekoaren barruan azpikontratatuko den ehunekoa.
b) Azpikontratista bakoitzaren gaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.
c) Azpikontratista bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku egoeretako batean ere ez dagoela dioena (SPKLren 71. artikuluan ezarri dira egoera horiek).
d) Adjudikaziodunaren eta azpikontratista bakoitzaren arteko kontratu-dokumentua, non adieraziko den azpikontratistari nola eta noiz egingo zaizkion ordainketak.
e) Azpikontratist(a/e)k kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza berezi guztiak betetzen ditu(zt)ela frogatzen duen dokumentazioa.

16.- Laneko arriskuen prebentzioaren araudia betetzea.

Kontratistak laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudia bete beharko du adjudikatutako kontratuari atxikitako langile guztiei dagokienez, eta konpromisoa hartu beharko du azpikontratistek ere betetzeko.

Hain zuzen ere, kontratistak:

-kontratua adjudikatu aurretik, ondoren azaltzen diren betebeharrak betetzen dituela egiaztatu beharko du, eta horretarako administrazio-klausula partikularren agiriko (AKPA) LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA eranskina (Enpresa-jardueren koordinazioa) (hemendik aurrera LAP ERANSKINA) eman beharko dio Kontratazio Zerbitzuari:

a) Indarrean dagoen legeriaren araberako antolakuntza prebentiboko modalitate bat ezarrita eduki behar du.

b) Kontratatutako jardueraren arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza eduki behar ditu. Eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatu behar bada, aurrekoa obrako lanpostuei dagokienez bete beharko da, eta laneko segurtasunerako eta osasunerako plana eduki beharko da.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Baldin eta jarduera ezin bada ebaluatu kontratua adjudikatu baino lehen, konpromisoa hartu beharko da kontratuaren arduradunari bidaltzeko LAP ERANSKINA, eguneratuta, Hori jarduera hasi baino lehen ziurtatu beharko da.

c) Jarduerak koordinatzeko sistema eduki behar du, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikuluarekin bat eginez.

d) Bere arriskuen ebaluazioa dela-eta prebentzioko baliabide bat egoteko eskatzen duten atazen edota jardueren zerrenda eduki behar du. Baldin eta ataza edo jardueraren bat ezin bada ebaluatu kontratua adjudikatu baino lehen, konpromisoa hartu beharko da LAP ERANSKINA, eguneratuta, bidaltzeko jarduera hasi baino lehen.

e) Kontratuaren exekuzioan aritzen diren langile guztiek, bertakoek nahiz kanpokoek, bermatuta eduki beharko dituzte honako hauek:

- Lan-ekipoak 1215/1997 Errege Dekretuan ezartzen denaren arabera erabiltzea (1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek lanerako ekipoak erabiltzearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena).
- Osasuna laneko arriskuen arabera zaintzea.
- Arriskuen eta prebentzio eta babes neurrien inguruko informazio eta prestakuntza egokia.
- Beharrezko babes-neurriak, kolektiboak eta indibidualak.
- Kontratua egiten den lekuko larrialdi-neurriak.
- Arrisku larri eta berehalakoen aurrean neurriak ezarri ahal izatea.

f) Adingabeko langileak, bereziki zaurgarriak direnak eta amatasuna babesten dela bermatu behar du.

g) Aplikatu behar baldin bada, laneko arriskuen prebentziorako legezko auditoretza eginda egon behar da.

Baldin eta kontratistak kontratuaren zati bat azpikontratatzen badu, azpikontratistari eskatu beharko dio aurkez dezala LAP ERANSKINA, beteta, eta kopia bat emango dio erakunde kontratatzaileari azpikontratatutako jarduera hasi baino lehen.

Kontratua adjudikatu aurretik LAP ERANSKINA eskatuko zaio adjudikazioduna izateko proposatzen den entitateari.

Hala ere, jarduera ezin bada ebaluatu kontratua adjudikatu baino lehen, kontratistak LAP ERANSKINA, eguneratua, bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta hori jarduera hasi baino lehen ziurtatu beharko du.

Jarduera ezin bada ebaluatu kontratua adjudikatu baino lehen, kontratuaren arduradunak LAP ERANSKIN eguneratua jasoko du, eta kopia bana bidaliko die Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuari eta Kontratazio Zerbitzuari.

Eraikuntza-obretan gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua aplikatu behar bada, kontratistak aintzat hartu beharko ditu segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileak eta obrako zuzendaritza fakultatiboak segurtasunari eta osasunari buruz ematen dituzten koordinazio-jarraibideak.

Gainerako kasuetan, kontratistak gutxienez sei hilean behin egin beharko du segurtasuna eta osasuna koordinatzeko bilera baterako deialdia. Bilera horien aktak egin beharko ditu. Bilera horietan honako hauek izango dira: enpresa kontratista (eta azpikontratistak, egonez gero), erakunde kontratatzaileko unitate sustatzailea eta kontratuaren arduraduna. Bizkaiko Foru Aldundiko Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuari (edo antzeko unitateari gainerako erakundeetan) aholkulari gisa deitu ahal izango diote. Gainera, deitu zein ez deitu, bilera guztietako akten kopiak bidali beharko zaizkio.

Harrera-akta egin aurretik kontratistak segurtasunaren eta osasunaren koordinaziorako bileren akten kopiak bidali beharko dizkio Kontratazio Zerbitzuari.

Kontratistak edo azpikontratistak klausula honetan ezartzen diren betebeharretako bat betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak eskatu ahal izango du ezar ditzala neurri egokiak betebehar horiek betetzeko eta araudian ezartzen diren ekintzak baliatu ahal izango ditu.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko betebeharretako bat betetzen ez bada eta ondorioz zigorra ezarri behar bada, horrek ez du eragotziko laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-hauste horri Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen arabera dagokion zehapena.

10.14.2.1.- Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak betetzearen jarraipena.

Aldundiaren aldetik.- Kontratuaren arduradunak jarraipena egingo du kontratua exekutatzeko baldintza berezi horiek betetzen direla egiaztatzeko, eta edozein unetan kontratuaren exekuzioan zehar behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio kontratistari, bai eta kontratuaren betetze-maila kontrolatzeko eta

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ebaluatzeko ahalmenak erabiltzeko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio ere; era berean, jarraipen-bilerak egiteko eta aldizkako ebaluazio-txostenak aurkezteko eskatu ahal izango dio.

Kontratuaren arduradunak txostena egingo du; bertan aztertuko da ea benetan bete diren kontratua arautzen duten agirietan ezarritako konpromisoak eta exekuzio-baldintza bereziak, eta kontratuan ezarritako gainerako betebehar guztiak.

Halaber, kontratuaren arduradunak kontratuan ezartzen diren betebeharren balizko ez-betetzeen berri emango dio kontratazio-organoari eta, behar denean, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

Kontratistaren aldetik.- Kontratistak kontratuaren arduradunaren eskura jarri beharko du baldintza-agiri honetako exekuzio-baldintza bereziak eta 2. ERANSKINeko erantzukizunpeko adierazpenean hartzen diren konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa, bai eta horrek eskatzen duen informazioa eta dokumentazioa ere.

Exekuzio-baldintza berezien jarraipena haietako bakoitzean ezartzen den bezala egingo da, eta harrera-akta jaso aurretik kontratistak genero-eraginari buruzko memoria bat aurkeztuko dio kontratuaren arduradunari. Bertan erabiltzaileen edo onuradunen eta zerbitzua ematen duten langileen adierazleak eta datuak sexuaren arabera bereiziko ditu, aplikatutako berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatu ahal izateko.

Nolanahi ere, legez eko kontratuan konpromiso eta exekuzio-baldintza berezi batzuetarako jarraipen berezia ezartzen ez bada, azken fakturarekin batera kontratistak denak bete dituelako adierazpena aurkeztu beharko du, erantzukizunpekoa edo zinpekoa, eta neurririk ezarri badu, azaldu egin beharko ditu.

10.14.2.2.- Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.

Kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzeagatik.

Kontratua exekutatzeko baldintza bereziak ez betetzea ez-betetze arintzat joko da, eta zigorraren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4ra artekoa izan daiteke, salbu eta kontratazio-organoak uste badu —arrazoiak azalduta— ez-betetzea larria edo oso larria dela. Halakoetan, zigorra % 7ra artekoa izan daiteke, ez-betetze larria gertatzen bada, eta % 10era artekoa, berriz, ez-betetze oso larria gertatzen bada. Ez-betetzea errepikatzean kontuan edukiko da larritasun-maila ezartzeko.

Aurrekoa gorabehera, baldintza-agiri honen 10.14.2 apartatuko 1., 2., 7. eta 14. zenbakietan jasotako exekuzio-baldintza bereziak funtsezko betebehartzat hartuko dira beti, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, SPKLren 211.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen diren exekuzio-baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoak apartatu horretan aurreikusten diren zigorrak ezarri ahal izango ditu. “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ez bada zigorrik ezartzen, apartatu honen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da eta bertan arautzen diren zigorrak ezarri ahal izango ditu kontratazio-organoak.

Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetatik kenduko dira edo, bestela, ordainketatik kendu ezin direnean, eratutako bermetik.

10.14.3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunaren langileei buruzko arau bereziak.

1.- Kontratu hau egiteko erabiliko diren langileei dagokienez, enpresa kontratista-adjudikaziodunak bere gain hartzen du enpresa zuzentzeko ahala, enpresaburu guztiek daukatena, benetan, eraginkortasunarekin eta etengabe erabili beharra. Bereziki, honako jarduera hauek hartuko ditu bere gain: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezpenak egitea; lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebehar legalak betetzea; diziplina-zehapenak jartzea, behar denean; Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; eta enplegatuaren eta enplegu-emailearen arteko kontratu-harremanetik datozen eskubide eta betebehar guztiak betetzea.

2.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak kontratuaren objektua bere bulegoetan edo instalazioetan egin behar du, honako kasu honetan izan ezik: baimena eman dakioke zerbitzuak administrazio-bulegoetan egiteko. Kasu horretan, enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileak langile publikoetatik bereiz egongo dira, hau da, beste leku bat okupatuko dute, ahal dela. Enpresa kontratista-adjudikaziodunari dagokio baldintza hau ere betetzea.

Enpresa kontratista-adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez ere; pertsona horrek enpresako plantillakoa izan behar du, eta betebehar hauek edukiko ditu, besteak beste:

a) Enpresa kontratista-adjudikazioduneko langileek enpresa kontratatzaileari kontratuaren exekuzioa dela-eta egin beharreko jakinarazpen guztiak jasotzea eta transmititzea.

b) Enpresa kontratista-adjudikaziodunaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, bereziki langileak lanera joaten diren eta nola hartzen dituzten oporrak. Izan ere, kontratatutako zerbitzua ez eragoztea da helburua.

10.14.4.- Hirugarrenen baimenak.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu ahal ditu egokitzat jotzen dituen kontratuak eta kudeaketak. Hori gorabehera, kontratistaren ardura da lana ondo exekutatzeko partikularrei, elkarteei, enpresei eta organismoei eskatu behar zaizkien baimen eta lizentzia guztiak eskatzea.

Hori dela eta, kontratistak onartu egin beharko ditu ukitutakoek beren eskubideak eta eskumenak erabiliz ezartzen dizkioten baldintza eta preskripzio guztiak, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz lana hobeto egiteko komenigarriak edo zentzuzkoak diren eskaera eta gomendio guztiak ere.

10.14. 5.- Adjudikaziodunak materiala zaindu behar izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak material guztiak edo haien parte bat jartzen baditu, adjudikaziodunaren zaintzapean daudela pentsatuko da, eta adjudikaziodunak materialok gorde eta itzuli beharko ditu. Eta ondasunon zaintzari eta galerari dagokienez, Kode Zibilean, Merkataritza Kodean eta Zigor Kodean xedatzen dena aplikatuko da.

10.14. 6.- Desgaitasuna duten pertsonei eragiten dieten oztopo arkitektonikoak eta komunikazio-oztopoak kentzea.

Enpresa kontratistak, ahal duen neurrian, lan egingo du Bizkaiko Foru Aldundiarekin edo atxikitako erakundeekin edo haiekin lankidetzan jardungo du, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzeko, horrelakoak badaude kontratuaren objektu diren zerbitzu, ekitaldi edota jardueretan.

10.15.- Kontratua etetea. Baldin eta erakunde kontratatzaileak kontratua etetea erabakitzen badu, edo SPKLren 198.5 artikuluan xedatzen dena aplikatzeagatik eteten bada, akta bat egin behar da egoera hori sortu duten inguruabarrak jasotzeko eta kontratuaren exekuzioa zertan geratu den azaltzeko.

10.16.- Enpresa kontratistaren ondorengoa izatea esparru-akordioa edota kontratu eratorria exekutatzen den bitartean. Sozietate kontratistak enpresen bategite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bategitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde xurgatzailearekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Halaber, enpresak edo horien jardun-arloak zatitu, ekarri edo eskualdatzen direnean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eratxikita duen erakundearekin, zeinak kontratu horren ondoriozko eskubide-betebehar guztiak subrogatuko dituen, betiere adjudikazioa erabakitzerakoan eskatzen zen kaudimena baldin badu, edo aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek —eta, iraunez gero, ondarea, enpresak edo jardun-arloak izan dituen sozietateak— erantzukizun solidarioa badute kontratua exekutatu behar duenarekin. Ezin bada subrogaziorik egin kontratua eratxikita duen erakundeak beharrezkoak diren kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da eta, ondorio guztietarako, adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi dela ulertuko da.

10.17.- Gardentasuna.

Gardentasuna berma dadin haren bi dimentsioetan (publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea), enpresa kontratistak helburu hori betetzeko behar den informazioa eman beharko dio kontratazio-organoari, horretarako errekerimendua egin ondoren.

Era berean, kontratua exekutatzen den bitartean, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren ondorioz sortzen den informazio guztia eman beharko du, kontratazio-organoak eskaturik, formatu berrerabilgarrietan.

10.18.- Lehiaren eta kolusioaren prebentzioaren inguruko betebeharrak.

10.18.1.- Lehiaren arloko indarreko betebeharrei eta xedapenei buruzko aholkularitza.

Erakunde honetan eskuratu daiteke lehiaren defentsaren arloko indarreko betebeharrei eta xedapenei buruzko informazioa: Lehiaren Euskal Agintaritza (hemendik aurrera LEA/AVC), https://www.competencia.euskadi.eus/hasiera/

Web orri horretan herritar guztien eskura daude salaketak aurkezteko eta kontsultak eta komunikazioak egiteko kanalak eta informazioa:

Salaketa aurkeztea: https://www.competencia.euskadi.eus/lea/salaketak/webavc00-container/eu/

Kontsultak eta komunikazioak: https://www.competencia.euskadi.eus/lea/kontsultak-eta-komunikazioak/webavc00-container/eu/

Izena eman gabe laguntzeko postontzia: https://www.competencia.euskadi.eus/buzon-decolaboracion-anonimo/webavc00-container/eu/

10.18.2.- Lehia askea babestea.

SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatzen denaren arabera, kontratazio-organoa lizitazio honen esparruan ohartzen bada lehiaren defentsarako legeria urratzen duen zerbait gertatu dela edo halako zerbait gertatu delako zantzu bat dagoela, LEA/AVC-ri jakinaraziko dio. Hain zuzen ere, lizitatzaileen arteko akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen edo itunduta edo nahita paraleloan egindako jardueren zantzuk guztiak jakinaraziko ditu, baldin eta horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragoztea, murriztea edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aldi baterako enpresa-elkarte batean (ABEE) lehiatzen diren enpresen arteko kolusioaren zantzuak egonez gero, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak SPKLren 150. artikuluaren lehenengo paragrafoan arautzen den prozedura aplikatuko du.

10.18.3.- Kolusioan aritzen diren enpresa lizitatzaileentzako ondorioak.

Lizitatzaileen arteko kolusioa debekatuta dago Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (LDL) 1. artikuluan. Hain zuzen ere, arau-hauste oso astuna da eta hausleari zehapena ezarri ahal zaio: negozio-bolumen osoaren % 10, gehienez, edo, negozio-bolumena zehazterik ez badago, 10 milioi euro, gehienez. Jokabide hori enpresa kontrolatzen duten enpresei edo pertsonei ere egotzi ahal izango zaie. (LDL, 61 - 63 artikuluak).

Kartel bateko enpresa batek erruki-eskaera aurkezten badio LEA/AVCri, horrek zehapena kendu ahal izango du edo zenbatekoa murriztu. Horretarako, zehapen-espedientea hasteko edo gertaerak ikertzeko behar diren proba-elementuak aurkeztu beharko ditu. (LDL, 65. eta 66. artikuluak).

Halaber, isuna ezarri ahal izango zaie legezko ordezkariei edo akordioan edo erabakian parte hartu duten zuzendaritza-organoetako kideei: 60.000 euro gehienez.

Lehia faltsutzea Zigor Kodearen 262. artikuluan ere tipifikatuta dago. Izan ere, bertan ezartzen denaren arabera, lehiaketetan eta enkanteetan prezioak aldatzen dituztenei urtebetetik hiru urtera arteko espetxealdi-zigorra ezarri ahal izango zaie, hamabi hilabetetik hogeita lau hilabetera arteko isuna, enkante judizialetan lehiatzeko desgaikuntza berezia, eta administrazio publikoekin kontratatzeko desgaikuntza berezia, hiru urtetik bost urtera artekoa.

Lehia faltsutzeagatik zehapena jasotzen duten enpresa lizitatzaileei kontratatzeko debekua ezarri ahal izango zaie. (SPKL, 71 - 73 artikuluak).

10.18.4.- Kalte-galeren ordaina eskatzeko ekintzak.

Lehia murrizten duen jokabide batek kalte egiten dien pertsonek erantzukizun zibileko kalte-ordaina eskatu ahal izango dute arau-hausleek egindako kalte-galerengatik. (LDL, 71 - 81 artikuluak).

11.- KONTRATU ERATORRIA AZKENTZEA.

Kontratua betetzen edo suntsiarazten denean azkenduko da.

A) Kontratua betetzea.

Kontratua betetzat joko da kontratistak prestazioa osorik egiten duenean kontratuan ezarritakoaren arabera eta erakunde kontratatzailearen nahierara.

11.1.- Harrera.

Hori egiaztatzeko, erakunde kontratatzaileak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egin behar du (harrera-akta) kontratuaren objektua entregatzen edo burutzen denetik hilabete igaro aurretik (baldintza-agiri honen karatulan beste epealdirik ezartzen ez bada).

Erakunde kontratatzaileak erabakiko du ea kontratistak egindako prestazioa behar bezala egokitzen zaien prestazioa exekutatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioei, eta, behar denean, kontratatutako prestazioak egiteko eta harreran antzemandako akatsak konpontzeko eskatuko du. Baldin eta kontratistak ez baditu lanak hitzartutako prestazioaren arabera egin, eta akatsak edo hutsegiteak kontratistari egotzi ahal bazaizkio, administrazioak ezetsi egin ditzake lanak, eta aske geratuko da ordaintzeko betebeharretik, edo, aurretik zer edo zer ordaindu badu, ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Lanak entregatu eta zerbitzuak egiterakoan eta haiek guztiak hartzean, SPKLren Erregelamendu Orokorraren 203. eta 204. artikuluetan ezartzen dena bete beharko da.

11.2.- Kontratuaren likidazioa.

Harrera-akta edo adostasun-akta egiten denetik kontatuta, hogeita hamar eguneko epearen barruan onartu eta jakinarazi behar zaio kontratistari bidezkoa den kontratu-likidazioa, eta, behar denean, haren saldoa ordaindu beharko zaio.

11.3.- Berme-aldiko akatsak eta hutsak.

Berme-aldia ezartzen bada, hartzen den egunetik edo adostasuna ematen den egunetik hasiko da zenbatzen eta aldi hori igarotakoan erakunde kontratatzaileak ez badu eragozpenik jartzen, azkendurik geratuko da kontratistaren erantzukizuna.

Hornitutako ondasunetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-aldian, kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du erakunde kontratatzaileak, bai egokiak ez diren ondasunak berriro hornitu diezazkion, zein ondasun hauek konpondu diezazkion, hori aski bada. Kontratistak eskubidea edukiko du hornitutako ondasunen aplikazioaz arduratzeko eta horretaz esateko daukana entzuteko.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Baldin eta berme-aldian kontratazio-organoak uste badu hornitutako ondasunak ez direla egokiak lortu nahi den helbururako, kontratistari egotz dakizkion akats edo hutsen ondorioz, eta ondasun horiek berriro entregatu edo konpontzea ustez nahikoa ez bada jarritako helburua lortzeko, atzera bota ahal izango ditu eta kontratistaren ardurapean utzi ahal izango ditu berme-aldia amaitu aurretik, eta ordaintzeko betebeharretik askatuta gelditukо da edo, bestela, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

B) Kontratua suntsiaraztea.

11.4.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezartzen dira.

Suntsiarazteko arrazoiak eta horien ondorioak aplikatzeari dagokionez, SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan ezarritakoa beteko da.

Kontratu eratorrietako bat suntsiarazteak ez du eragingo esparru-akordioa suntsiaraztea.

12.- KONTRATUAK LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

12.1.- Kontratuak lagatzea.

Kontratuaren aldaketa subjektiboa egin ahal izango da kontratu-lagapenaren bitartez, honako muga eta betekizun hauek kontuan edukita:

12.1.1.- Mugak.

Kontratistak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak, baldin eta:

a) lagatzailearen gaitasun teknikoak edo pertsonalak ez badira izan arrazoi erabakigarriak kontratuaren adjudikazioan, eta

b) lagapenak ez badakar ondorio legez merkatuaren lehiaren egiazko murrizketarik.

SPKLren 214. artikuluaren b) letraren 2. apartatuan ezartzen dena gorabehera, ezingo da baimendu hirugarren bati lagapena egitea, horrek kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak badira.

Baldintza-agiri honen karatulan ezartzen bada lizitatzaile adjudikaziodunek sozietate bat eratuko dutela beren beregi kontratua exekutatzeko, sozietate horren partaidetzak laga ahal izango dira, karatulan ezartzen diren kontrol-mekanismoak aplikatuz. Partaidetza horien lagapenak aldaketa bat eragiten badu kontratistaren gaineko kontrolean, kontratu-lagapenarekin berdindurik gelditukо da partaidetza-lagapena baimentzeari dagokionez, “Kontratuak lagatzea” apartatuan ezartzen denarekin bat etorriz.

12.1.2.- Betekizunak.

Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza-agiri honen karatulan aipatzen diren betekizunez gainera, ondoren zehaztuko diren gutxieneko betekizunak ere eskatuko dira:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena. Baimen hori beti emango da hurrengo letretan ezartzen diren baldintzak betez gero. Baimen-eskaerari buruzko ebazpenaren jakinarazpena egiteko epealdia bi hilabeteko izango da; aldi hori amaitutakoan administrazio-isiltasunez emantzat jo beharko da.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren 100eko 20 gutxienez exekutaturik eduki behar du. Baldintza hori ez da aplikatuko lagapena gertatzen denean kontratista konkurtsoan badago, nahiz eta likidazio-fasea irekita egon, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena daukan epaitegiari jakinarazi bazaio birfinantzaketarako akordio bat edo hitzarmenaren proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko negoziazioak hasi direla, konkurtsoen legerian ezartzen denari jarraikiz.

c) Lagatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontratatzeko gaitasuna eduki behar du, bai eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eskatzen zaion kaudimena ere, eta ezin izango du debekatuta eduki kontratatzea.

d) Adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da.

12.2.- Azpikontratazioa.

12.2.1.- Azpikontratatu ahal izatea.

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, baldintza-agiri honen karatulako “U” apartatuan (BESTE ZEHAZTASUN BATZUK) ezartzen denaren arabera. Salbuespena: SPKLren 215. artikuluaren 2. apartatuaren d) eta e) letretan ezarritakoaren arabera prestazioa edo haren zati bat kontratistak berak zuzenean egin behar izatea. Azpikontratazioaren mugak ez du inolaz ere berekin ekarriko lehiaren murrizketa efektiboa gertatzea, SPKLn izaera isilpekoa edo erreserbatua duten kontratuei buruz ezarritakoa ezertan kendu gabe, edo kontratuak betearazteaz batera segurtasun neurri bereziak hartu behar direnean LCSP edo erregelamenduzko xedapenei jarraituz, edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak hala eskatzen duenean.

12.2.2.- Azpikontratazioaren baldintzak.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratistak bere eskaintzan adierazten badu azpikontratatzeko asmoa daukala, honako hauek bete beharko dira azpikontratuak egiteko:

1.- Kontratista nagusiak behean zerrendatuko diren datuak komunikatu behar dizkio idatziz kontratazio-organoari kontratua adjudikatzen denetik hura gauzatzen hasi arteko aldian:

a) Prestazioaren zer zati azpikontratatzeko asmoa daukan.

b) Azpikontratistaren identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria(k).

c) Azpikontratistak prestazioa exekutatzeko gaitasuna baduela egiaztatzeko justifikazio askietsia. Gaitasun hori honako alderdiekin lotu behar da: Horretarako, azpikontratistaren giza baliabideak, elementu teknikoak eta esperientzia azaldu beharko dira. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik SPKLren 71. artikuluaren arabera. Baldin eta azpikontratistak sailkapen egokia badu azpikontratatuko den kontratu-zatia egiteko, nahikoa izango da hala dela jakinaraztea gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

2.- Kontratu nagusia exekutatzen ari den bitartean, kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dizkio kontratazio-organoari goian aipaturiko informazioan gertatzen diren aldaketa guztiak, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia eman beharko dio.

3.- Azpikontraturen bat ez bazaio egokitzen eskaintzan adierazitakoari, (a) eskaintzan aipatzen ez den enpresa batekin egiten direlako edo (b) eskaintzan aipatzen ez den kontratu-atal bati dagokiolako, ezin izango da sinatu harik eta hogei egun igaro arte jakinarazpena bideratzen eta apartatu honen 1. puntuan aipatzen diren justifikazioak aurkeztu arte. Salbuespena: aurretik beren beregi baimendu badira, egin ahal izango da, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez badu horren kontrako adierazpenik ematen epealdi horren barruan.

Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratistak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatzen badira.

12.2.3.- Baldintzak haustea.

Aurreko apartatuan azpikontratazioak egiteko ezarritako baldintzak hausteak, edo azpikontratistaren gaitasuna ez egiaztatzeak, edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak ez egiaztatzeak, denek izango dituzte, SPKLn aurreikusitakoez gainera, eta kontratua exekutatzean duen eraginaren arabera, ondoren aipatuko diren ondorioetako bat:

a) Kontratistari zigorra ezartzea, azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 50era artekoa.

b) Kontratua suntsiaraztea, baldin eta SPKLren 211. artikuluaren 1. apartatuaren f) letraren bigarren paragrafoan ezartzen diren betekizunak betetzen badira.

12.2.4.- Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean duten betebeharra.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren mende bakarrik egongo dira; beraz, kontratista nagusia izango da kontratuaren erantzule bakarra Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean. Hark hitzez hitz bete beharko ditu administrazio-klausula partikularren agirian edo dokumentu deskriptiboan xedatutakoak eta kontratuaren baldintzak, bai eta SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren betebeharrak ere.

12.2.5.- Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzea.

Kontratistak azpikontratistei edo hornitzaileei itundutako prezioa ordaindu beharko die SPKLren 216. artikuluan arautzen diren epealdietan eta baldintzetan. Epealdiak eta baldintzak ezin izango dira txarragoak izan Administrazioaren eta kontratistaren arteko harremanetarako ezarritakoak baino, eta kontratista nagusiak ondasunak edo zerbitzuak onartzen edo egiaztatzen dituenetik zenbatuko dira, baldin eta kontratistak edo hornitzaileak faktura legez ezarritako epealdien barruan eman badu.

Ondasunak eman edo zerbitzua egin eta hogeita hamar egunen buruan eman behar da onarpena, gehienez ere. Epealdi horretan bertan aurkeztu behar dira desadostasun-arrazoiak ere, izanez gero. Epealdi horretan aurkezten ez badira, ulertuko da ondasunak onartu direla edo zerbitzuak ongi egin direla.

Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, baldin eta azpikontratistak edo hornitzaileak epaitegi batean edo arbitraje-egoitza batean kontratista nagusiaren aurka jotzen badu fakturak ordaintzeko lehenengo paragrafoaren arabera ezarritako epealdia amaitu ondoren, kontratazio-organoak behin betiko bermea atxikiko du aldi batez (bere ondorioak sortzen jarraituko du) eta ezin izango da itzuli harik eta kontratistak egiaztatu arte oso-osorik

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ordaindu dituela auzia amaitzen duen epaitegiko edo arbitraje-egoitzako ebazpen irmoan adierazitako eskubideak, SPKLren 111. artikuluan ezartzen diren baldintzak betez gero.

Azpikontratistek ezin izango diete baliozko moduan uko egin SPKLren 216. artikuluan onartuta dauzkaten eskubideei, eskuratu aurretik zein ostean. Horretan ezin izango da aplikatu Kode Zibilaren 1110. artikulua.

12.2.6.- Azpikontratistei edo hornitzaileei eginiko ordainketak egiaztatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, kontratuaren arduradunaren bitartez, egiaztatu ahal izango du ea kontratista adjudikaziodunak zorrotz betetzen duen kontratuan parte hartzen duten azpikontratista edo hornitzaile guztiei ordainketak egiteko betebeharra. Horretarako, kontratuaren arduradunak eskatuta, kontratista adjudikaziodunak honako hauek bidaliko dizkio:

a) kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza, haien parte-hartzea burutzen denean,

b) ordainketa-epearekin zuzeneko lotura duten azpikontratazioaren edo hornikuntzaren baldintzak.

c) azpikontratistei edo hornitzaileei ordainketak egin zaizkielako frogagiria, behin prestazioa amaituta eta honako bi legeetan ezartzen diren legezko epeen barruan: SPKL (216. artikulua) eta 3/2004 Legea (abenduaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira merkataritza-eragiketen berankortasunari aurre egiteko neurriak).

Exekuzio-baldintza berezi hori ez betetzea oso larritzat joko da, eta horregatik Bizkaiko Foru Aldundiak azpikontratuaren zenbatekoaren 100eko 10a arteko zigorra ezarri ahal izango du. Behin betiko bermearekin erantzungo zaie horregatik ezartzen diren zigorrei.

Egiaztapen-jarduketak eta baldintzak ez betetzeagatik zigorrak ezartzea nahitaezkoak izango dira Bizkaiko Foru Aldundiarentzat honako kasu bi hauetan: balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa duten zerbitzu-kontratuetan; azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren ehuneko 30 edo gehiago denean, kontratista nagusiarekin obraren zati batzuk edo unitate batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez hartzen duten azpikontratistei egin beharreko ordainketei dagokienez.

Kontratistari zigorra ezarri beharko zaio kasu honetan: azpikontratistak edo hornitzaileak kontratazio-organoari emandako ebazpen judizial edo arbitraje-ebazpen irmoaren bidez egiaztatzen denean kontratistak ez diola ordaindu kontratuaren burutzapenarekin lotutako azpikontratista edo hornitzaile bati abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezartzen den epealdian eta berandutze hori ez dela gertatu azpikontratistak edo hornitzaileak prestazioa egiteko bere gain hartutako kontratu-beharretako bat ez betetzeagatik. Zigorra gehienez ere kontratuaren prezioaren ehuneko bost izango da, eta hilean-hilean ezarri ahal izango da ordaindu beharrekoa ordaintzen ez den bitartean, harik eta baterako mugara heldu arte: kontratuaren prezioaren ehuneko 50. Behin betiko bermearekin erantzungo zaie horregatik ezartzen diren zigorrei.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. ERANSKINA - PROPOSAMENA

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

_____ _____ _____ _____ jaunak/andreak, bere izenean edo berak ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean _____ (*idatzi enpresaren sozietate-izena*) (IFZ: _____), administrazio-klausula partikularren agirian ezartzen denaren arabera egiaztatzen den bezala, honako hau ADIERAZTEN DU:

1. Badaki Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralak abian ipini duela 2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOA adjudikatzeko prozedura.

2. Esparru-akordioa arautzen duten preskripzio teknikoen agiria eta administrazio-klausula partikularren agiria aztertu ditu eta ezagutzen ditu.

3. Halaber, administrazio-klausula partikularren agiriaren lehenengo klausulan aipatzen diren lege-testuak eta erregelamendu-testuak ezagutzen ditu.

4. Ados dago aurreko apartatuetan aipatutako dokumentu eta lege-testu eta erregelamendu-testu guztiekin, onartzen ditu eta men egiten die, oso-osorik eta aldaketarik gabe.

5. Konpromisoa hartzen du aurrean azaldutako esparru-akordioa hemen ezartzen den bezala burutzeko:

6. Baldintza-agiri honen karatulako H.1 apartatuarekin bat etorriz, konpromisoa hartzen du aurrean aipatutako esparru-akordioa hemen ezartzen den bezala burutzeko:

1. LOTEA: GOBERNU-ORGANOEN DOKUMENTAZIO INSTITUZIONALA (GAZTELANIA-EUSKARA ETA EUSKARA-GAZTELANIA)

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 0 - % 69,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,12 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 70 - % 94,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,07 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 95 - % 99,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,035 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. LOTEA: GOBERNU-ORGANOEK ETA ERAKUNDEEN JARDUERAK SORTUTAKO DOKUMENTAZIOA (GAZTELANIATIK ZEIN EUSKARATIK EUROPAR BATASUNEKO ETA HANDIK KANPOKO BESTE HIZKUNTZA BATZUETARA, ETA ALDERANTZIZ)

I. Gaztelaniatik zein euskaratik Europar Batasuneko eta handik kanpoko beste hizkuntza batzuetara, eta alderantziz, hizkuntza hauek izan ezik: txinera, finlandiera, hebreera eta japoniera

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 0 - % 69,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,12 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 70 - % 94,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,07 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 95 - % 99,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,035 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

II. Gaztelaniatik eta euskaratik arabierara, txinerara, finlandierara, hebreerara eta japonierara, eta alderantziz:

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 0 - % 69,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,24 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 70 - % 94,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,14 € hitzeko.*		_____ € zenbakiz
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Itzuli beharreko testuaren eta itzulpen-memoriaren arteko kointzidentzia % 95 - % 99,99 artekoa bada PREZIOA -BEZA GABE- *Eskaintzen den zenbatekoa ezin da izan hau baino gehiago: 0,07 € hitzeko.*	_____ € zenbakiz	
BEZa	% _____	_____ BEZaren zenbatekoa € zenbakiz

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ENPRESA LIZITATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK ETA KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEA

**Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du.*

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____), bere izenean edo berak ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean _____ (idatzi enpresaren sozietate-izena) (IFZ: _____), honako hau ADIERAZTEN DU:

1.- Araudia betetzea.- Eskaintza egiteko kontuan hartu dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren gainean aplikatu beharreko araudia; ingurumenaren, gizarte gaien eta lan arloaren gainean aplikatu beharreko araudia, Europar Batasuneko zuzenbidean eta Estatu mailako zuzenbidean ezarritakoaren arabera; hitzarmen kolektiboak; edo Estatua lotzen duten ingurumen, gizarte, eta lan arloko nazioarteko zuzenbideko xedapenak; betiere, kontratua betearazteko orduan parte hartzen duten langileei aplikagarri zaizkien lan eskubideak bermatuz.

Kontratistak beregain hartu du ekoizpen kate osoan zehar oinarrizko lan eskubideak errespetatzeko duen betebeharra, eta Laneko Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzekoa; bereziki, honako hauek:

- 29 eta 105 konbentzioak, behartutako lana ezabatzeari buruzkoak.
- 87 eta 98 konbentzioak, sindikatuen eta elkarteen askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100 konbentzioa, balio bereko lana egiteagatik gizonen eta emakumeen eskulanaren artean ordainsari berdina ordaintzeari buruzkoa.
- 111 konbentzioa, enplegua eskuratzeko diskriminazioaren aurkakoa eta arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, jatorri nazional edo jatorri sozialaren ziozko lan baldintza desberdinen kontrakoa.
- 138 konbentzioa, haurren lana eta esplotazioa abolitzeari buruzkoa.
- 182 konbentzioa, haurren lan forma txarrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehala ekiteari buruzkoa.

2.- Pertsona desgaituak enplegatzeko legezko betebeharra.- Kontratuaren iraunaldian adjudikaziodunak plantillan dauzkan langileen % 2 gutxienez desgaitasuna duten langileak izan beharko dira, enpresan 50 langile edo gehiago badaude, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 42. artikuluarekin bat eginez, edo, bestela, apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak, desgaitasuna duten langileentzako erreserba-kuota aparteko kasuetan betetzeari buruzkoak, ezartzen dituen neurriak ezarri beharko ditu. Halaber, konpromisoa hartzen du kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatzeko aipatutako betebeharra betetzen duela, arduradunak eskatuz gero, kontratuaren iraunaldiko edozein unetan edo, edonola ere, azken faktura bidali baino lehen.

3.- Berdintasun-plana.- _____ (zenbakia) langile dauzka.
Gainera, berdintasun-plana dauka, legezko betebeharra daukalako (50 langile baino gehiago) edo konbentzio-betebeharra daukalako.

4.- Lanean sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako deliturik eta bestelako jokabide batzuk ez gertatzeko prebentzioa.- Sexu askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak 12. artikuluan ezartzen duena betetzeko, kontratistak edo azpikontratistak honako betebehar hau hartu beharko du bere gain kontratuaren iraunaldian: lanean (eremu digitala barne) sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako deliturik eta bestelako sexu-jokabiderik (batez ere sexu-jazarpenik eta sexuan oinarritutako jazarpenik) ez gertatzeko moduko lan-giroa sustatuko du, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoak, 48. artikuluan ezartzen duenaren arabera, eta prozedura bereziak ezarriko ditu halakorik ez gertatzeko eta halako jokabideak (eremu digitalekoak barne) jasaten dituztenek

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

salaketak edota erreklamazioak aurkezteko aldera. Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta, eta horrekin batera ezarri dituen prebentzio-neurrien frogagiriak eta (egonez gero) aurkeztutako salaketei edota erreklamazioei buruzko txostena ere bai. Halaber, pertsona edo entitate kontratistak agiri bidez frogatu beharko du kontratuari atxikitako langileei honako hauek jakinarazi zaizkiela: Lan-esparruan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuk prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa eta Bizkaiko Foru Aldundiak Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen eta orientazioen adierazpenari buruz hartutako.

5- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko printzipio orokorrak betetzea.-Kontratistak honako printzipio hauek bete beharko ditu kontratuaren iraunaldi osoan: tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersekzionalaren integrazioa; aukera-berdintasuna; emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea eta desagerraraztea; dibertsitatea eta diferentzia errespetatzea; sexu- eta/edo genero-identitatea eta sexu-orientazioa askatasunez garatzeko eskubidea, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak askatasunez baliatu ahal izatea, eskubide horiek egikaritzean pertsonek askatasunez erabaki dezaketela bermatuz; genero-ikuspegiaren integrazioa; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; koordinazioa, lankidetza eta nazioartekotzea; emakumeen ahalduntzea; gizonen inplikazioa; parte-hartzea; berrikuntza, gardentasuna eta kontu-ematea, eta hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea. Harrera-akta egin aurretik 8. ERANSKINA aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta.

6.- Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua. Berak ordezkatzen duen enpresa:

☐ BADAGO Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan xedatzen diren kasuetako batean.

☐ EZ dago Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan xedatzen diren kasuetako batean ere.

Erantzuna baiezkoa bada:

☐ EZ da aurkeztu kontratuaren adjudikaziora talde bereko enpresekin, ezta Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasuetan dauden enpresekin. Proposamen indibidualak aurkeztu dituzte.

☐ BAI, banakako proposamena aurkezten duen talde bereko beste enpresaren batekin (edo batzuekin) parte hartzen du, edo Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasuetako batean dagoenen batekin. Proposamen indibidualak aurkeztu dituzte. Hona:

IFZ	Sozietatearen izena

7.- Hitzarmen kolektiboa eta soldata.

Kontratua adjudikatuz gero, haren objektua den jarduera egiten duten langileei honako hitzarmen kolektibo hau aplikatuko zaie:

Hitzarmenaren izena:	
Aldizkari ofizial honetan argitaratu da:	
Argitalpen-data:	

Konpromisoa hartzen du sektoreko hitzarmen kolektiboan ezartzen den soldata ordaintzeko kontratuaren exekuzio-aldi osoan, betiere langile bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera; inolaz ere ez da ordainduko hori baino soldata txikiagorik.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

8.- Prekarietatea eta behin-behinekotasuna murriztea.-Kontratuaren iraunaldi osoan hura gauzatu behar duten langile guztiek mugagabeko kontratua edukiko dute. Nolanahi ere, lan-arloko legerian arautzen diren salbuespenak aplikatuko dira. Kontratua formalizatzen denetik hilabete igaro aurretik enpresa edo entitate adjudikaziodunak kontratuari atxikitako pertsonen datuak emango ditu; horretarako, Gizarte Segurantzako alten eta lan-kontratuen kopiak aurkeztuko ditu.

9.- Konpromiso hau hartzen du: kontratua adjudikatuz gero, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan eta preskripzio teknikoen agirian ezartzen diren baliabide materialak edota langileak eratxikiko dizkio kontratuari.

10.- Konpromisoa hartzen du administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan eta preskripzio teknikoen agirian ezartzen diren gauzatze-baldintza bereziak betetzeko.

11.- Ordezkatzen duen pertsonak, entitateak edo enpresak bere kabuz prestatu du bere eskaintza; gainera, ez du eduki inolako harremanik lehiakideekin eta ez du haiekin itunik egin prezioez, ez eskaintzez ez beste ezertaz.

12.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUAK ESKURATZEKO BAIMENA

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

BAIMENA ematen diot Bizkaiko Foru Aldundiari Kontratazio Zerbitzuaren organo kudeatzailearen bidez biltzeko, baliabide elektronikoak erabiliz, kasuan kasuko ogasunek jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruz egin beharreko ziurtagiriak.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. ERANSKINA – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

LIZITATZAILEEN ERREGISTROAK EMANDAKO ZIURTAGIRIAN JASOTZEN DIREN INGURUABARRAK BALIOZKOAK DIRA ETA INDARREAN DAUDE

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

_____ _____ _____ _____ jaunak/andreak (NAN: _____), bere izenean edo berak ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean _____ (*idatzi enpresaren sozietate-izena*) (IFZ: _____), administrazio-klausula partikularren agirian ezartzen denaren arabera egiaztatzen den bezala, honako hau ADIERAZTEN DU:

Berronetsi egiten du _____(e)ko Lizitatzaileen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren inguruabarrak baliozkoak direla eta indarrean daudela.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

(Eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileak aurkeztu beharko du, errekerimendua jaso ondoren)

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

_____ _____ _____ _____ jaunak/andreak (NAN: _____), bere izenean edo berak ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean _____ (*idatzi enpresaren sozietate-izena*) (IFZ: _____), administrazio-klausula partikularren agirian ezartzen denaren arabera egiaztatzen den bezala, honako hau ADIERAZTEN DU:

1.- Tokiko zergen arloan indarrean dagoen araudia eta, zehatzago, jarduera ekonomikoen gaineko zergarena aplikatuz, zerga horretan jarraian zehazten diren epigrafeetan alta emanda dagoelako aitorpena aurkeztu behar du, eta sinadurako egunean ez dago baja emanda:

Epigrafea	Kontzeptua

2.- Honako hau: *(markatu behar dena)*

☐ Zerga ordaindu behar du, eta erkatutako azken ordainagiriaren/ordainagirien kopia(k) aurkezten du/ditu.

☐ Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onesten duen martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.g) artikuluan arautzen den salbuespena aplikatu ahal zaio.
(Jarduerari ekiten dioten subjektu pasiboak, jarduera egiten duten zerga honen lehenengo bi zergaldietan).

☐ Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bategina onesten duen martxoaren 17ko 2/1992 Foru Dekretu Arauemailearen 5.1.h) artikuluan arautzen den salbuespena aplikatu ahal zaio.
(Urteko eragiketen bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak).

☐ Irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 18.2 artikuluan arautzen den salbuespena aplikatu ahal zaio.

☐ Beste salbuespen-kasu batzuk.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
KAUDIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA
(Eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileak aurkeztu beharko du, errekerimendua jaso ondoren)

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

_____ jaunak/andreak
(NAN/AIZ/PASAPORTEA: _____), _____ enpresaren izenean
eta ordezkaritzan (IFZ: _____)

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN:

<u>Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:</u>

Ondoren adierazitako datuak guztiz bat datoz onartutako eta erregistroan gordailututako urteko kontuekin, eta lizitatzaileak amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiari dagozkio.

Kontuak gordailutu diren ERREGISTROA	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZik gabe):

2.- Ondoren zehaztuko den arrazoi baliodun batengatik (adibidez: kontuak erregistro egokian aurkeztu beharrik ez daukalako edo enpresa sortu berria delako) lizitatzaileak ez dauzka ez onetsita ez gordailututa amaitutako azken hiru urteetan bolumen handiena izan duen urteko ekitaldiko kontuak.

_____

3.- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, balio erantsiaren gaineko zergaren aitorpeneko 303 edota 390 eredua(k) aurkeztu d(it)u, edo baliokidea(k), edo sozietateen gaineko zergaren aitorpeneko 200 eredua edo baliokidea, honako arrazoia honengatik (jarri X bat):

☐ Enpresaburua da eta ez dauka kontuak Merkataritza Erregistroan inskribatu beharrik.
☐ Aurreko apartatuan adierazitako arrazoi balioduna.

Erantsitako dokumentazioa, BEZari edo sozietateen gaineko zergari buruzkoa.	EKITALDIA	NEGOZIOAREN URTEKO BOLUMENA (BEZik gabe):

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. ERANSKINA - ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

EGINDAKO ZERBITZUAK EDOTA LANAK

(Eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileak aurkeztu beharko du, errekerimendua jaso ondoren)

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

_____ jaunak/andreak (NAN/AIZ/PASAPORTEA: _____), _____ enpresaren izenean eta ordezkaritzan (IFZ: _____)

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNAREN PEAN:

Esparru-akordioaren objektu diren zerbitzu edo lan beretan edo antzekoetan beheko taulan adierazten den esperientzia lortu du _____ urteetan [1]:

ZERBITZUA EDO LANA [2]	Zenbatekoa, BEZik gabe	Jasotzailea	Ziurtagiria edo egiaztagiria eman duena
1			
2			
3			
4			
5			
6			
n			
Azken hiru urteetan egindako zerbitzuen eta lanen GUZTIRAKO ZENBATEKOA, BEZik gabe.			

(1) Adierazi azken hirurak.
(2) Idatzi zerbitzuaren edo lanaren izen osoa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

7. ERANSKINA– ADIERAZPENA

ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOA

2025. ETA 2026. URTEETAKO ITZULPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA ESPARRU-AKORDIOA

- Jauna/Andrea: _____
- NANa: _____
- Bere izenean edo honako enpresa honen izenean:
  - Enpresa: _____
  - IFZ: _____
  - Honako zenbakia duen ahalordetze-eskrituraren arabera: _____
  - Harremanetarako telefonoa: _____
  - Harremanetarako posta elektronikoa: _____

- Jauna/Andrea: _____
- NANa: _____
- Bere izenean edo honako enpresa honen izenean:
  - Enpresa: _____
  - IFZ: _____
  - Honako zenbakia duen ahalordetze-eskrituraren arabera: _____
  - Harremanetarako telefonoa: _____
  - Harremanetarako posta elektronikoa: _____

- Jauna/Andrea: _____
- NANa: _____
- Bere izenean edo honako enpresa honen izenean:
  - Enpresa: _____
  - IFZ: _____
  - Honako zenbakia duen ahalordetze-eskrituraren arabera: _____
  - Harremanetarako telefonoa: _____
  - Harremanetarako posta elektronikoa: _____

BEREN ERANTZUKIZUNAREN PEAN ADIERAZTEN DUTE:

1. Aldi baterako enpresa-elkarte bat eratu nahi dute, eta, lizitazioaren xede den kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, konpromisoa hartzen dute enpresa-elkarte horren eraketa eskritura publiko bidez formalizatzeko.

2. Enpresa bakoitzak honako partaidetza hau edukiko du (ehunekotan adierazia) aldi baterako enpresa-elkartean:

Enpresa: _____ % _____
Enpresa: _____ % _____
Enpresa: _____ % _____

3. Goian aipatutako ondorioetarako, honako hau da aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari bakarra: _____-

**Aldi baterako enpresa-elkartea eratuta ez dagoen artean jakinarazpen elektronikoak lizitazio elektronikoaren plataforman elkarteburu izendatutako enpresari bidaliko zaizkio. Aldi baterako enpresa-elkartea eratu eta kontratuaren adjudikazioa jakinarazi ondoren jakinarazpenak aldi baterako enpresa-elkarteari bidaliko zaizkio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ERANSKINA - LAP LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA
(Enpresa-jardueren koordinazioa)

Kontratuaren datuak		
Espedientearen zk.	Kontratuaren iraunaldia	Kontratuaren objektua

Honen datuak: ☐ KONTRATISTA ☐ AZPIKONTRATA — Kontratista:
Azpikontratatutako jarduera:

Izen-abizenak edo sozietatearen izena		IFZ:
Telefonoa	Sakelakoa	e-maila

Kontratuaren objektu diren BFAren lantokiak eta enpresen langileak lantoki bakoitzean, bidezkoa bada

Lantokia	Langileen kopurua	Lantokia	Langileen kopurua	Lantokia	Langileen kopurua

Enpresa-jardueren koordinazioa

Segurtasunaren eta osasunaren arloko solaskidea		Kargua
AEEko inskripzioaren zenbakia eraikuntza-obretarako, 32/2006 Legearen arabera (AA/CC/NNNNNNN)	EJSN	Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen arloko entitate kudeatzailea edo laguntzailea
☐ Ez da aplikatzen		

Eraikuntza-obretan, jardueren koordinazioa segurtasunaren eta osasunaren koordinatzailearen edo zuzendaritza fakultatiboaren ardura izango da. Gainerako kasuetan, kontratistak konpromisoa hartzen du segurtasuna eta osasuna koordinatzeko bilerak egiteko sei hiletik behin gutxienez. Bilera bakoitzaren akta egingo da.

Prebentzio-antolamendua

Enpresak honela antolatzen ditu bere baliabideak prebentzio-jardueretarako:

a) ☐ Enpresaburua bera arduratzen da
Enpresaburuaren izena

b) ☐ Langile bat edo batzuk izendatzen dira
Izendatutakoen kopurua, prebentzio-prestakuntzaren arabera
Oinarrizko maila | Tarteko maila | Goi-maila

c) ☐ Prebentzio-zerbitzu propioa (PZP), enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzua (EKPZ) edo prebentzio-zerbitzu mankomunatua (PZM); zehaztu espezialitateak:

Espezialitatea	*PZP*	*EKPZ*	*PZM*	*PZaren izena*	*PZaren arduraduna*	*PZaren telefonoa*
Laneko segurtasuna	☐	☐	☐			
Higiene industriala	☐	☐	☐			
Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua	☐	☐	☐			
Laneko medikuntza	☐	☐	☐			

Prebentzioaren kudeaketa — E/A: Ez da aplikatzen

Enpresak egin du kontratuaren objektu diren jarduera guztien arriskuen ebaluazioa?	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
Enpresak egin du arriskuen ebaluazioaren araberako prebentziorako plangintza?	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
Zehaztu da zer kasutan behar diren prebentzio-baliabideak? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zein diren kasu horiek.	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ

☐ Jarduera bat/batzuk ezin da/dira ebaluatu kontratua adjudikatu baino lehen.
Kontratuaren ardura daukan BFAko pertsonari LAP eranskin eguneratua bidali behar zaio jarduera hori(ek) hasi baino lehen.

Enpresak badauka enpresa-jarduerak koordinatzeko baliabiderik? (LAPL, 24. art.)		☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
Kontratuaren objektu diren jarduerak egiten dituzten langileei honako hauek bermatuko zaizkie:	1215/1997 EDarekin bat datozen lan-ekipoak edukitzea eta erabiltzea	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Osasunaren zaintza lanpostuaren arriskuen arabera	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Arriskuen eta prebentziorako eta babeserako neurrien inguruko prestakuntza	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Arriskuen eta prebentziorako eta babeserako neurrien inguruko informazioa	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Babes kolektiboko neurriak eta norbera babesteko neurriak	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Larrialdi-neurriak lantokian	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
	Arrisku larri eta berehalakoen aurreko neurriak lantokian	☐ E/A	☐ BAI	☐ EZ
Enpresak bermatzen du bereziki zaurgarriak diren langileen, haurdun dauden langileen eta adingabeko langileen babesa?		☐ E/A	☐ BAI	BAI EZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Enpresak egin du laneko arriskuen prebentzioaren legezko auditoretza?	☐ E/A	☐ BAI	B EZ A I

Behean sinatzen duen pertsonak bere gain hartzen du formulario honetan adierazitako guztiaren egiazkotasunaren erantzukizuna.

Formularioa bete duena	Kargua	Sinadura eta zigilua	Data

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Ez da aurkeztu behar formularioan adierazitako informazioaren frogagiririk. Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuak eskubidea dauka adierazitakoa egiazkoa denez egiaztatzeko behar diren agiri osagarriak eskatzeko.

Kontratuaren datuak

- Eremu hau adjudikaziodunak edo kontratistak beteko du.

Adjudikaziodun edo kontratistaren / azpikontratatutako enpresaren datu orokorrak

- Datuak enpresa adjudikaziodunarenak edo azpikontratistarenak diren zehaztu behar da.
- Azpikontratetan zehaztu behar da zer jarduera azpikontratatu den eta zer enpresak azpikontratatu duen.
- Enpresa adjudikaziodunak azpikontratatuei eskatu beharko die bete dezatela eranskin hau eta bidal diezaiotela kontratuaren ardura daukan BFAren zerbitzuari. Salbuespena: eraikuntza-obretan, 1627/1997 Errege Dekretuaren arabera, segurtasunaren eta osasunaren koordinatzaileak zehaztuko du zer dokumentazio behar den.
- Enpresak BFAri zerbitzua egiteko erabiltzen duen lantokiaren datuak adierazi behar dira.

Kontratuaren objektu diren BFAren lantokiak eta lantoki bakoitzeko langileen kopurua

- Enpresak BFAren lantokietan lan egiten badu, adierazi behar du lantoki horietatik zeintzuk dauden kontratuaren objektuan eta zenbat langile edukiko duen horietako bakoitzean.

Enpresa-jardueren koordinazioa

- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko solaskidearen datuak eman behar dira. Enpresan prebentzioa nola kudeatzen duen dakien enpresako norbait izan behar da.
- 32/2006 Legearen 2. artikuluan ("Aplikazio-eremua") aipatzen diren eraikuntza-lanak egin behar badira, eraikuntzako enpresa bermatuen erregistroko inskripzioaren zenbakia jarri behar da. Bestela, ez dela aplikatzen adierazi behar da. Eraikuntza-lanak dira honako hauek egiten diren atazak edo jarduerak:
  Zulaketak; lurren mugimenduak; eraikuntza; aurrefabrikatutako elementuak muntatu eta desmuntatu; egokitzapenak edo instalazioak; eraldakuntza; birgaikuntza; konponketa; eraispena; mantentzea; kontserbazioa eta pintura eta garbiketa lanak; saneamendua.
- Laneko istripu eta gaixotasun profesionalen arloko entitate kudeatzailearen edo laguntzailearen datuak adierazi behar dira.

Prebentzio-antolamendua

- Prebentzioaren kudeaketaren ardura enpresaburuak berak hartzen badu bere gain, beraren datu pertsonalak baino ez dira eman behar.
- Langile bat edo batzuk izendatuz gero, izendatutakoen kopurua zehaztu behar da, prebentzio-prestakuntzaren arabera banakatuta.
- Prebentzio-zerbitzu propio (PZP), prebentzio-zerbitzu mankomunatu (PZM) edo enpresaz kanpoko prebentzio-zerbitzu (EKPZ) bat edo batzuk hautatuz gero, espezialitate bakoitzerako nolako zerbitzua dagoen zehaztu behar da. EKPZ hitzartu den espezialitateetan, honako datu hauek eman behar dira: zerbitzuaren izena, zerbitzuaren arduraduna edo teknikaria eta horren telefonoa.

Prebentzioaren kudeaketa

- Atal honetan ez dira aipatu behar enpresaren jarduera guztiak, baizik eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako kontratuaren objektu direnak bakarrik.
- Prebentzio-baliabideak edukitzea Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren 39/1997 Errege Dekretuaren 22 bis artikuluan arautzen da (ad.: altueratik erortzeko arrisku berezia, lurperatuta edo hondoratuta geratzeko arriskua, bazter-lekuetako lanak...).
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko lege-auditoriaren gaineko galderari bakar-bakarrik erantzun behar diote prebentzio-jardueren baliabideak antolatzeko moduaren arabera legezko betebehar hori duten enpresek.

Formularioa bete duena

- Formularioan emandako datuen egiazkotasunaren erantzukizuna daukan pertsonaren datuak adieraziko dira. Enpresako pertsona bat izan behar da, haren ordezkaria izateko lege-ahalmena daukana.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratuaren arduraduna:

Enpresa adjudikazioduna:

Plantillan dauden pertsonen kopurua:

8. ERANSKINA – ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

BERDINTASUNAREN ARLOKO KLAUSULAK BETETZEA

_____ jaunak/andreak (NAN: _____), bere izenean edo berak ordezkatzen duen pertsona fisikoaren/juridikoaren izenean _____ (*idatzi enpresaren sozietate-izena*) (IFZ: _____), honako hau ADIERAZTEN DU:

1.- Neurriak ezarri ditu lanean sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkako deliturik eta bestelako jokabide batzuk ez gertatzeko (jardunbide onen kodeak prestatu eta zabaldu, informazioa edo prestakuntza emateko kanpainak egin, prebentziorako berariazko prozedura ezarri, salaketak edo erreklamazioak bideratu...):

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

** Ezarritako neurrien eta jaso diren salaketen edota erreklamazioen frogagiriak erantsi dira; horrez gainera, kontratuari atxikitako langileei Lan-esparruan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako beste jokabide batzuk prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloa eta Bizkaiko Foru Aldundiak Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontra egiteko printzipioen eta orientazioen adierazpenari buruz hartutako erabakia jakinarazi zaizkiela frogatzen duen dokumentazioa ere erantsi da.

2.- Hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabili ditu:

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

**Hizkuntza eta irudiak modu inklusiboan eta sexismorik gabe erabiltzeko protokoloa erantsi da.

3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipio orokorrak betetzen ditu:

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

4.- Laneko arriskuen prebentziorako ekintzak eta laneko osasunerako ekintzak genero-ikuspegiarekin diseinatu eta gauzatu ditu:

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

** Ezarritako neurriei buruzko memoria erantsi da.

5.- Bi sexuetako langileek soldata bera kobratzea bermatu da:

☐ BAI / ☐ EZ (markatu aukera)

** Kontratuari atxikitako langileen zerrenda pseudonimizatua erantsi da (datuak: sexua, kargua/lanbide-kategoria; soldaten batez besteko zenbatekoen erregistroa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZZIX-BHY2-FVKE-SLB0
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus